

Zurekin
BIZKAIA
gara

BIZKAIKO PROGRAMA 2019

AURKIBIDEA

Herri Duina

- Enplegua
- Politika Sozialak
- Zerbitzu Publikoak
- Etxebizitza

Herri Aurreratua

- Industria
- Elikadura burujabetza
- Zerbitzuak eta turismoa
- Merkataritza

Herri Jasangarria

- Hondakinak
- Lurralde Antolaketa
- Energia
- Azpiegiturak eta Mugikortasuna

Etorkizuneko Herria

- Jatorri aniztasuna eta migrazioak
- Gazteria
- Hizkuntza politika

Bakedun Herria

- Memoria eta biktimak
- Presoak
- Bizikidetza eta giza eskubideak

Herri Demokratikoa

- Gobernantza
- Parte hartzea

Herri Justua

- Zerga politika
- Aurrekontu Politikak
- Feminismoa
- Garapenerako Lankidetzak
- Sexu eta genero aniztasuna

Herri Osasuntsu eta Ikasia

- Kultura
- Kirola
- Laikotasuna

HERRI DUINA

ENPLEGUA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Hainbat arrazoi direla medio, enplegua oinarrizko elementu bat da pertsona gehienek bizitzan. Dauden arrazoi guztien artean, seguruenik funtsezkoena eta agerikoena da enpleguari lotutako ordainsaria gure errenta-iturri nagusia dela. Ordainsari horri esker ondasunak eta zerbitzuak eskura ditzakegu gure premiak ongizate-maila onargarrietan asebetetzeko. Horregatik, ez da harrizkoa enplegua herritarren kezka nagusia izatea. Beste garai batzuekin alderatzen badugu, ikus dezakegu kezka horrek bi ikuspegi dituela; izan ere, enplegurik ezaz gain, dauden enpleguen kalitatea txarra izateak ere kezka eragiten du.

Enpleguaren gaia ezin da gai horrekin erabat lotuta dauden beste errealitate batzuetatik bereizi: alde batetik, ugalketa-lana eta emakumeen kaltetan egiten den lanaren banaketa desberdina eta bidegabea kontuan ez hartzea; beste alde batetik, laguntza ekonomikoak eta gizarte-prestazioak jasotzen dituzten langileen kopurua areagotzea. Kolektibo horren barnean ez dira sartzen langabezia-prestazioa jasotzen dutenak edo langabezia-prestaziorik ez duten iraupen luzeko langabeak, familiaren solidaritatearen eta errenta publikoko programa urrien beharra duten pertsonak ere bai baitaude. Era berean, kolektibo horren barnean honako hauek sartzen dira: enplegu ordaindua izan arren, lan-harremanen eta soldaten egungo prekarizazio-prozesuaren ondorioz pobrezian dauden pertsonak.

Ildo horretan, behar adinako diru-sarrera bat pobrezia aurka babesteko tresna bat da, baita gizarte-bazterketa prebenitzeko bide eraginkor bat ere.

Azken hamarkada hauetako eraso neoliberalaren fronte nagusietako bat, sektore publikoari egiten zaion erasoarekin batera (esku-hartze publikoa desarautzea eta produkzio-eremuaren nahiz gizarte-eremuaren uzkurdura), honako hau izan da: langileen partaidetza gero eta txikiagoa izan da hazkunde ekonomikoaren banaketan, soldatak jaitsi egin dira, langabezia igo egin da eta lan-eskubideei dagokienez atzera egin da.

Euskal Herrian lan-eremuan eskumen bakar bat ere ez izatea guztiz kaltegarria da errenta banatzeko eta gizarte-kohesiorako, baita gure produkzio-sarearen etorkizunari dagokionez ere, lehiakortasuna prezioen arabera lehenesten baitu, eta malgutasuna langile kopurua azkar

murriztuta lortu nahi du. Adibide batzuk jartzearen, adierazi behar dugu Bizkaian 68.000 langabe baino gehiago daudela (langabe horien %15 30 urtetik beherakoak dira) eta emakumeen eta gizonen arteko soldata-arraila handitzen ari dela oraindik.

Bizkaiko 34.000 pertsonak baino gehiagok jasotzen dute diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), eta EAEn, urtarrilean, erregistratutako 83.579 kontratuetatik 7.727 mugagabeak izan dira eta 75.852 behin-behinekoak.

Beraz, iraupen luzeko egiturazko langabezia gain, pobrezian dauden enplegatutako langileez ere hitz egin behar dugu.

HELBURU OROKORRA

Gure helburua enplegu-politika integral bat ezartzea da, gizarte aurreratu baten nahiarekin bat datorren eta estrategia baten barnean kokatuta dagoen politika bat, gure ekonomia-sareak etorkizunean irauteko. Justizia sozialetik eta giza garapenetik begiratuta, benetako aukera bakarra proposamen sendoei itxura ematea da. Proposamen horien lehentasunezko helburua enplegua izan behar du, baina horretaz gain, garapen kapitalistaren egungo ereduaren mugak ere kontuan hartu behar dituzte proposamen horiek, bai ingurumen-eremuari dagokionez, bai ekologiari dagokionez, baita gizarte-eremuari dagokionez ere. Halaber, ugalketa-lana ere barnean hartu behar dute eta lan-baldintzak eta gizarte-baldintzak ezarri behar dituzte lan horri modu kolektiboan eta zuzen ekiteko.

Bizkaiko egoera soziolaboralari erantzun nahi badio, enplegu-estrategiak asmo handien jarrera batetik ekin beharko dio erronka zail horri, egoera hori erabat aldatzeko, hain zuzen ere.

Hori horrela izanik, esku hartzeko honako hiru ildo hauek proposatu nahi ditugu: enplegua (publikoa, pribatua eta kooperatiboa) sortzea, lana banatzea eta lan-baldintzak duin bihurtzea dauden enpleguetan (baita berrietan ere); hori guztia enplegutzat hartzen dugunaren devaluazioa kontuan hartuta. Devaluazio hori merkatuen eta salgaien globalizazioa (ez, ordea, lan-eskubideena) dela medio gertatu da, baita sektore guztietan gero eta handiagoa den automatizazioa dela medio ere, gizarteak automatizazio horren etekinik jasotzen ez duelarik. Horri dagokionez, ezinbestekoa da aurrekoa gizarte-babeseko eta etengabeko trebakuntzako sistema bat edukitzeko premiarekin lotzea.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Enplegu publikoaren indartzea

- Zerbitzu publiko duinak eta kalitatezkoak lortzeko, enplegu publikoa indartzea ezinbestekoa da. Horrekin, enpleguan baldintza duinak bermatuko ditugu. Horretarako, ezinbestekoa da

une honetan pribatizatuta dauden zerbitzu publiko guztien berrazterketa egin eta, azterketak hala gomendatzen duenean, publikazio prozesuak gauzatu.

Kontratazio publikoan lan-baldintza duinak aplikatzea

- Gizarte-klausulak dituzten eta lan-erreforma aplikatzen ez duten enpresei lehentasuna ematea lehiaketa publikoetan.
- Erakunde-eremutik ez kontratatzea aldi baterako laneko enpresak, eta mota horretako enpresak kontratatzen dituzten enpresekiko harremanak eta kontratu ekonomikoak berrikustea.

Soldata-arraila desagerraraztea eta gizarte-neurriak

- Bizkaiko Administrazioan lan egiten duten gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna lortzen lagunduko duen neurri multzo bat sartzea. Berdintasun hori hainbat arlotan lortu nahi da: funtzio publikoan sartzeko garaian, soldata-mailan, prestakuntzaren arloan, lanpostuz igotzeko garaian, eta abar.
- Gizarte osoari begira, etxeko lana eta zainketa-lana –gaur egun batez ere emakumeek egiten dituztenak– arlo publikoaren ardura izateari dagokionez aurrera egitea ahalbidetuko duten zerbitzuak (0-3 urte, etxeko laguntza, egoitzak,...) sustatzea.
- Mendetasunaren arreta eta zainketa-lana sustatzea eremu publikotik.
- Gizarte-babeseko neurriak sartzea, hala nola garapen ekonomikoaren eta gizarte-garapenaren bermea. Plan espezifikoak ezartzea hainbat arrazoi direla medio lan-eremuan sartzeko zailtasunak dituzten sektoreetarako.
- Garraio publikoa (ordutegiak, maiztasunak, linea-aldaketak, lantokiei estaldura ematea...) enplegu jasangarriko politikaren funtsezko zatitzat hartzea.

Kalitatezko enplegua sustatzea ingurunean

- Erakundeen arteko elkarlana eta koordinazio bultzatu enplegu arloko estrategiak definitzeko eta garatzeko.
- Negoziazio kolektiboa, osasunaren defentsa, enpleguaren banaketa eta gutxieneko soldata duina lehenesten duen eredu bat sustatzea.
- Soldatari eutsiz, lana banatzearen eta kalitatezko enplegua sortzearen alde egiten duten enpresei laguntzeko proiektuak abian jartzea (diru-laguntzak, hobariak...).
- Lanerako etengabeko prestakuntzaren estrategia, enpresen benetako premiekiko koherentea dena, enpresa horiek elkarlanean aritu daitezen bilatuz, laneratzea egokia izan dadin. Berezko baliabideak optimizatzea, hala nola Behargintza.
- Lan-merkatuan bitartekaritza-lanak egitea enplegu jasangarriko politikei dagokienez.

- Ekonomian esku-hartze publikoa izatea ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokionez estrategikotzat hartzen diren sektoreak sustatzeko Bizkaian.
- I+G+Bko programak eta zentroak nahiz balio erantsi handieneko sektoreak sustatzea.
- Kalte handiena pairatu duten Bizkaiko eskualdeak identifikatzea enplegu-politikak zehazteko garaian, gizartea eta lurraldea egituratzeko metodo gisa. Langile autonomoen errealitateari buruzko diagnostiko parte-hartzaileak egitea genero-ikuspegia erabiliz, eta plan integral eta handiak abian jartzea egoera horri aurre egiteko, hainbat neurri gehituz, hala nola laguntza-ildoak eta etengabeko aholkularitza ematea kolektibo prekarioei eta kalteberei, emakumezko langile autonomoen arteko elkarlana, asoziazionismoa eta aliantzak sustatzea, etab.

POLITIKA SOZIALA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Gizarte-zerbitzuak Ongizate Estatuaren oinarrietako bat dira eta eskubide unibertsal eta subjektibo gisa eratu behar dira. Hala eta guztiz ere, eskubide hauek bermatzeko gai ez den sistema ahul baten aurrean gaude: diru hornidura eskasa, pribatizazio maila altua eta lurralde desoreka izan ditu ezaugarri sistema horrek.

12/2008 legearen —abenduaren 5ekoa Gizarte Zerbitzuei buruzkoa— helburu nagusia gizarte zerbitzuak eta prestazioak unibertsalizatzea izan zen. Hau da, adinekoen egoitzak, zentro okupazionalak, indarkeria matxista jasaten dutenentzako laguntza psikosoziala edo eguneko zentroak bezalako zerbitzuak pertsona guztien esku jartzea, bakar batzuen pribilegioa izan ez daitezen. Legea indarrean sartu zenetik hamar urte pasa dira eta zoritzarrez ezarritako helburuak betetzeko asko falta da oraindik.

Denbora tarte horretan mugarri bat izan bada, hori 2016ko abenduaren 25ekoa izan da. Egun horretan legean jasotako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak eskubide subjektibo bilakatu ziren. Horrek esan nahi du, gaur egun eskubide horien betetzea erreklamatu ahal dela administrazio bidean eta, beharrezkoa bada, epaitegietan ere. Beraz, legearen arabera osasunak, hezkuntzak edo pentsioak duten babes maila bera dute. Horregatik, EH Bilduren helburua da aitortuta duten eskubide izaera defendatzea, orain arte Bizkaiko Foru Aldundiak izan duen jarreratik argi eta garbi aldentuz. Gizarte zerbitzuak ez dira “laguntzak”, guztion bizitzarako funtsezko eskubide ukaezinak dira.

Foru Aldundiek zer esan eta ardura handia dute gizarte zerbitzuen sistema osoaren funtzionamendu egokian, euren eskumena baita bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzuak, hots, zerbitzu eta prestazio espezializatuak. Horiek modu egokian jarduten ez badute sistema

osoa kaltetua izaten da. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak pisu handia du sistemaren garapenean, baita planifikazio lanetan eta hirugarren sektorea eta herritarren parte hartzea sustatzeko unean ere.

Tamalez, planifikazioa egiteke dagoen zeregina da. Ondorioz, premiei ahalik eta egokien erantzuteko zailtasunak daude, gainera ezinbestekoa den zerbitzuen hurbiltasuna eta lurralde-oreka eskuratzeko eragozpenak nabariak dira. Bizkaia lurralde anitza eta zabala da, eta kalitatezko zerbitzuak ezinbestean deszentralizatutako zerbitzuak izan behar dira. Ildo horretan, barne koordinazioa asko hobetzeko dagoen eremua da.

Azkenik, garrantzitsua da gaia kokatzeko zainketaz ari garela gogoratzea, zehazki, zainketa espezializatuz eta intentsiboaz. Bizitza sostengatzeko funtsezkoak diren lan horien ardura emakumeengan jartzen da gehien bat, merkaturatzen direnean ere bai. Zentzu horretan, EH Bilduren helburua da zainketa egokiak eta libreki aukeratuak bermatzea, beti lan baldintza duinak eskainiz.

HELBURU OROKORRA

- Herritarrei bermatzea gizarte zerbitzuen eta prestazioen sarbidea, beharrezkoak diren estaldura eta intentsitatearekin. Aldi berean, beharrezkoa da gizarte zerbitzuei balioa ematea, herritarren konfiantza lortzeko.
- Gizarte zerbitzuen kalitate bermatzea. Horretarako, giza baliabide nahikoak eta langileen lan-baldintza duinak ziurtatu behar dira.
- Gizarte zerbitzuen izaera publikoa sendotzea, kudeaketa pribatua nagusi baita gaur egun.
- Erabiltzaileen eta gizarte-eragileen parte hartze eskubidea bermatzea, legean eskubide eta printzipio gisa jasotzen da eta. Bestetik, profesionalen ezagutza eta esperientzia aprobetxatzeko bideak ezarri behar dira.
- Itxaron zerrendak eta koordainketa gutxitzeko neurriak ezarriko ditugu.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Eskubideen unibertsalizazioa modu egokian eta eskualdeen beharrei egokituta planifikatzeko Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa osatu. Benetako planifikazio dezentralizatua lortzeko aldera. Horretarako, instituzioen arteko koordinazio mahaia (Bizkaiko Mahai Interinstituzionala) benetako lan esparrua bihurtu behar da, udalen ezagutzari etekina ateraz. Gainera, beharrezkoak diren ebaluazioak eta egokitzapenak egingo dira, legearen betetze osoa lortzeko aldera.
- Gizarte zerbitzuen sistemaren funtzionamendu egokirako funtsezkoa da eskubideak agerira ateratzea, informazio nahikoa eskaintzea, zerbitzuak eta prestazioak heldu errazak izatea,

eta, bereziki, hauek duintzea. Ezjakintasuna, lotsa edo estigmatizazioa ezin dira gehiago izan gizarte zerbitzuak eta prestazioak ez erabiltzeko arrazoia.

- GUFÉ-IFAS (Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea- Instituto Foral de Asistencia Social) — zentro eta zerbitzu publikoak kudeatzen dituen erakundea— berrindartu, gizarte zerbitzuen izaera publikoa sendotzeko gakoak da eta.
- Kontraturiko eta itundutako baliabide pribatuen zerbitzuen kalitatearen ikuskapena eta kontratuaren betekizunen ebaluazioa hobetu eta areagotuko da. Kudeaketa pribatua bada ere, ardura publikoa izaten jarraitzen duela argi geratu behar da. Egun, agerian geratu da egiten diren kontrolak ez direla nahikoak.
- Gizarte sistemen arteko elkarlana sendotu, horretan, esparru-soziosanitarioa garrantzi berezia duela, baita gizarte- eta hezkuntza-alorreko sistema eta gizarte- eta lan-alorrekoa ere bai. Gainera, sistema beraren baitan koordinazio eraginkorra hobetzeke dagoen elementua ere bada, bereziki etengabeko arreta garatu nahi bada. Sistemaren baitan administrazio eta departamentu ezberdinen parte hartzeak ezin du erabiltzailearengan eragin negatiborik izan, sistema bakar baten moduan funtzionatu behar du.
- Marko egokiak eta iraunkorrak sortu erabiltzaileen —beharrezkoa denean euren familia edo ingurukoekin batera— eta gizarte-eragileen parte hartzea bermatzeko. Parte hartzea eraginkorra izateko etengabekoa izan behar da, planifikaziotik ebaluazioa arte. Bestetik, abiapuntu bezala, beharrezkoa da gardentasuna bultzatzea, eta informazioa benetan irisgarria eta eskuragarria izatea herritarrentzat.
- Menpekotasuna eta aniztasun funtzionala dutenek ohiko ingurunean eta ahalik eta modu aktiboenean bizitzeko zerbitzu espezializatuak garatu.
- Indarkeria matxistari aurre egiten dieten emakumeei zuzendutako zerbitzuak (aholkularitza juridikoa, arreta psikologikoa eta esku-hartze psikosoziala) indartu, giza baliabideak handituz eta beste sistemekin koordinazioa bultzatuz. Era berean, lagun-egite profesionala etengabe bermatuko da. Bestetik, arreta egiten duten profesionaleri prestakuntza feminista eskaini, emakumeen boteretze-prozesuetan lagungarri izateko.
- Haurrak eta nerabeak babesterako orduan neurri sozioedukatiboei lehentasuna eman, familia harrerarekin batera. Sistemaren ardatza ezin dira izan adingabeen zentroak. Arlo honetan bereziki deigarria da giza baliabide gehiagoren beharra, Aldundian bertan ere. Azkenik, beharrezkoa da babes-sistematik igaro diren gazteak adin nagusiak bilakatzerakoan baliabide nahikoak egotea, egun batetik bestera babes gabe ez geratzeko.
- Babesgabetasun- menpekotasun- edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ahaldunduko dituen arreta-eredua adostu, baliabideak eskubidetzat joko dituen, ikuspegi laguntzailetik urrunduta.
- Erabiltzaileen duintasuna eta berdintasuna oinarritzko printzipioak diren heinean beharrezkoa da ezberdintasunaren aitortza lortzeko estrategia orokor bat garatzea. Zentzu horretan ezinbestekoa izango da benetako arreta pertsonalizatua garatzea aniztasuna aintzat hartuko duena. Gainera, erabiltzaile eta profesionalen hizkuntza- eskubideak bermatuko dira arreta zuzena eskaintzen denean.
- Zerbitzuen eta prestazioen ereduaren eta kudeaketa ereduaren gaineko hausnarketa bultzatuko da. Horretarako, oinarritzat hartuko da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren

Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa -administrazioen betebeharrak mugatzen dituen araudia-. Dena den, oinarria bada ere ez da inolaz ere ez muga izango. Zerbitzu eta prestazio ezberdinen arteko osagarritasuna indartuko da, eta presazko prozedura eraginkorra bideratuko da.

ZERBITZU PUBLIKOAK

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Azken urteetan herritarren oinarrizko babesa, aukera eta posizio berdintasuna eta bizi-proiektua ahalbidetu behar dituzten zerbitzu publikoak jo mugan izan dira etengabe. Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dituen zerbitzu publikoetan ere murrizketak pairatu ditugu, zerbitzu publiko horiek ematen dituzten langileen lan baldintzek okerrera egin dute eta guzti honen ondorioz, herritarrok jaso beharreko zerbitzu publikoen kalitatea gutxitu da, estaldura maila murriztu egin da eta inbertsioak –arruntak zein estrategikoak– apaldu egin dira.

Legegintzaldi honetan, horren adibide esanguratsuenak ditugu adineko egoitzetako langileen greba, Bizkaibuseko langileen greba,...

HELBURU OROKORRA

Herri baten duintasuna herritarren duintasunean oinarritzen da eta, zentzu horretan, kalitatezko zerbitzu publikoak eraikitzea eta eskaintzea politika publikoen lehenengo eginkizuna eta ardura da, oinarrizkoena.

Datozen lau urteetan, helburu nagusia gure herria murrizketarik gabeko herria izatea lortzea da, egungo egoerari buelta emanez, galdutako hainbat eskubide indarrean jarriz eta, baita ere, aurrerapausoak emanez, babes mailan Europako herri aurreratuekin buruz buru jartzeko. Eta hori dena, langileekin eta herritarrekin lankidetzan, azken urteetan jaso duten zigorra eta mespretxua gaingiduz.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Azpikontratazioa murriztu eta zerbitzu publikoak administrazioak zuzenean kudeatzeko urratsak eman.

- Sektore publikoko langileen lan- eta gizarte-baldintzak hobetzeko lan-harreman eredu berria sortu.
- Zerbitzu publikoetan hizkuntza – normalizazioa bultzatu, eta zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea bermatu.
- Zerbitzu publikoen kontratazio publikoetan gutxieneko soldata 1.200 €koa izatea bermatu.
- Kontratazio publikoan klausula sozialak txertatzea sustatu.
- Sektore publikoaren erosketetan gizarte-erantzukizuneko klausulak txerta daitezela sustatzea, eta haien jarraipena egitea betetzen diren edo ez ikusteko.

ETXEBIZITZA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Gure herrialdean etxebizitza hutsak egon arren bizkaitarrek duten etxebizitza beharrezana agerikoa da: bai erosketa eta baita alokairu prezioak oso altuak dira, eta honek besteak beste gazteek emantzipaziorako zailtasunak izatea dakar.

Azken hamarkadetan eman den eredu eraikitzaile mugagabeak ondorio larriak utzi dizkigu: exekuzio – hipotekarioengatik kalean gelditu diren familiak, nekazal luraren okupazio neurrigabea, etxebizitza hutsak herrietan,...

Honez gain Bizkaian ere baditugu beste arazo nagusi batzuk: zaharkituta gelditu diren etxe eta zonaldeak, etxebizitzetan irisgarritasun eta autonomia arazoak dituzten nagusiak,... Administrazioek egoera hauei irtenbidea ematen lagundu behar du.

HELBURU OROKORRA

- Lur gehiago okupatu gabe etxebizitza beharrezanean erantzuna eman: birgaitzea eta etxe hutsen alokairua bultzatu.
- Beharrezan egoerei erantzuna eman: gazteak, nagusiak, larrialdi egoeretan dauden pertsonak
- Instituzioen arteko lankidetzak bultzatu, etxebizitza beharrezanean era integral batean erantzuteko

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Bizkaian dagoen etxebizitza beharra eta etxe hutsen parkeari buruzko diagnosis egin erakundeen arteko elkarlanean.
- Etxebizitza hutsak erabilgarri jartzeko neurri fiskalak hartzea bultzatu, jasotako dirua etxebizitza politikerara bideratzeko. Horien artean, etxebizitza hutsei %150eko errenergia ezartzea.
- Larrialdi egoerei erantzuteko etxebizitza parke publikoa sortzea hutsik dauden BFaren etxebizitzekin, eta Udal eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.
- BFaren etxebizitza publikoak alokairura bideratzea eta zerga-neurriak hartzea etxebizitzaren alokairua bultzatzeko.
- Etxebizitza hutsak alokairura bideratzeko udalei eta gertuko erakundeei laguntza eman.
- Irigarritasun behar bereziak dituzten pertsonen, beren beharrei erantzuten dien etxebizitzetara sarbidea erraztu eta etxe aldaketak egiteko protokoloa egin.
- Hipoteka exekuzio eta kaleratze kasuetan informazioa eta laguntza emateko bulegoa sortu, baita erabiltzaileentzako gehiegikeria, gehiegizko klausulak, IRPH... kasuetan.
- Alokairu sozialaren ordainketa errazteko baldintzak egokitzea: inork ez dezala bere diru-sarreraren %30etik gora ordaindu, ezta %15etik gora ere lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik kobratzen dutenen artean
- Etxebizitzak birgaitzeko neurriak sustatu, efizientzia energetikoa, ingurumenaren zaintza, irigarritasuna eta segurtasuna kontuan izanik
- Etxebizitzaren segregazioa ahalbidetzeko araudia aldatu, eraikinak gaur egungo jendartearen beharretara egokitzeko helburuz.
- Zuzkidura bizitokiak sustatu udalekin lankidetzan, gazteentzako zuzenduak eta errotazio sistema bat izango dutenak.
- Lurralde antolamendu tresnetan etxebizitzaren birgaitzea bultzatu.

HERRI AURRERATUA

INDUSTRIA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Zaila da Euskal Herriko egoera ekonomikoa definitzea. Gure herrialdea, orokorrean, ekonomia aurreratuenen multzoan kokatuko litzatekeen arren, egoera sozialak eta ekonomikoak okerrera egin du 2008ko krisialdiaz geroztik. BPGa aztertzen badugu, ikus dezakegu EAE Europako batez bestekoa baino %21 gorago dagoela, gure erkidegoa 51. postuan dago Europako 276 eskualdeen artean, baina 2008an batez besteko hori baino %30 gorago zegoen eta 34. postuan zegoen. Nahiz eta azkeneko urteetan susperraldi makroekonomikoa nabaria izan, krisiaren alibioarekin hartu diren politikak eliteetarantz bideratu dute susperraldi horren mozkin osoa, eta langileei murrizketak eta atzerakadak aplikatu dizkiete; murrizketa eta atzerakada horiek, gainera, ez dira leheneratu oraindik. Orain zantziek desazelerazioa datorrela adierazten dutenez, are premiazkoagoa da lan-baldintzak eta soldata-baldintzak hobetzearen alde lan egitea, baita zerbitzu publikoak bermatuko dituen politika fiskal baten alde lan egitea ere.

Oraina hobetzeko eta etorkizuneko arazoei aurrea hartzeko, industria indartzea apustu estrategiko bat da euskal ekonomiarako eta gizarterako. Euskal ekonomiaren posizio erlatibo onuragarria ez da erakunde-kudeaketa on batean oinarritzen, behin eta berriz saldu nahi diguten bezala, gure lurraldeko industria-indarrean baizik. Industriak balio erantsia eta soldata handiagoak sortzen ditu, eta, gainera, zerga-baliabide handiagoak sortzen ditu enpresen aldetik nahiz soldatapeko langileen aldetik. Krisiak beste leku batzuetan batez ere zergen eta higiezinaren arloan izan zuen garrantzia, baina gure herrialdean industria-sarean izan zuen eragin handia, krisialdiaren hasieran jaitsiera handia izan baitzuen. Eta aipatutako susperraldi "makro" hori industriara iritsi bada ere, produkzioari dagokionez industria leheneratu baita, oraindik ez da lehenera etorri azken hamarkadan galdutako industria-enplegua. 2008an, 225.000 pertsonak egiten zuten lan EAeko industrian; 2016aren amaieran, aldiz, 190.000 pertsonak. 2018aren amaieran, EAEn lan egiten zuten pertsonen %22,1ek industria-sektorean egiten zuen; datu hori oso urrun ez dauden beste garai batzuetako erregistroen oso azpitik dago oraindik.

Beste datu kezkarri bat industriaren dimentsio teknologikoa da. Propaganda ofiziala gorabehera, industria-sektorean enplegatutako pertsonen heren batek soilik egiten du lan teknologia-eduki handikotzat edo ertain-handikotzat hartzen diren azpisektoreetan, Euskadiko industria-enpleguen bi heren maila teknologiko txikiko edo ertain-txikiko sektoreen mende daude, horrek epe ertainera dakartzan arriskuekin. Bizkaian, 80.000 pertsonak baino gehiagok egiten dute lan industrian, baina

teknologikoko aurreratuago dauden sektoreetan (maila ertain-handikoak edo handikoak) lan egiten dutenen ehunekoak ez da %25era iristen. Biztanleriari eta BPGdri dagokionez aldea gorabehera, 2017an, Bizkaiak ia Gipuzkoak adina inbertitu zuen I+Garen alorrean (batak 617 milioi eta besteak 583 milioi), baina Bizkaiko enpresek Gipuzkoakoek baino gutxiago inbertitu zuten (Bizkaikoek 312 milioi, eta Gipuzkoakoek 345). Bizkaiak I+Garen alorrean egin duen gastua BPGdren %1'65 da; zifra hori Europako erreferentziako zifra den %3tik oso urrun dago, eta Euskadiko, EBko eta Txinako batez bestekotik oso behera. Soilik desberdintze teknologikoak berma dezake euskal industriak biziraungo duela produkzio-kostu txikiagoak dituzten lehiakideen aurka.

Gainera, Bizkaiko lurraldean desoreka handiak daude eskualdeen artean; oro har, esan daiteke eskualdeko BPGen industriak pisu handiagoak izateak ekartzen duela adierazle sozioekonomiko hobeak izatea (langabezia, errenta, pobrezia...) eta alderantziz. Ildo horretan, Bizkaiko metropolialdea, bereziki Bilboaldea, Hego Uribe eskualdea, Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri, herrialdearen atzetik daude.

HELBURU OROKORRA

2008. urtean euskal industriak jaitsiera handia izan ondoren, 2015. urtetik aurrera susperraldi iraunkorrari, baina arinari ekin zaio. Baina, horrez gain, susperraldi hori desberdina da pertsonen artean (ez da modu berean iristen langileengana eta enpresaburuengana) eta eskualdeen artean. Argitu behar da susperraldi hori kanpoko faktoreek eragindakoa dela, batez ere euskal industriaren bezero diren herrialdeen aurretiko susperraldiak eta bestelako zirkunstantzia exogenoek eragindakoa (petrolioaren prezioen jaitsiera, euroaren devaluazioa, zerga-estimuluak, interes-tasa txikiak...). Horregatik, hemorragia eten bada ere, gure industria-sareak egitura-arazoak izaten jarraitzen du, egungo ahuleziak eta etorkizuneko mehatxuak diren arazoak, hain zuzen ere. Arazo horiek antzematea eta zuzentzea izan beharko luke industria-politikaren ardatza, lidergo publiko argi batetik abiatuta, sendoagoa eta bidezkoagoa den industria-eredu berri baterantz aurrera egiteko.

Honako hauek dira industria-eredu horren ardatz handiak:

- Teknologikoki aurreratua izatea: BPGren % 3ko inbertsioa egitea I+G+bn
- Lurraldearen aldetik orekatua izatea: industria eskualde desindustrializatueta itzul dadin sustatuz.
- Sozialki bidezkoa izatea: langileen eskubideak eta partaidetza areagotuz
- Zerga-aldeak arduratsua izatea: enpresa-irabaziekin zerbitzu publikoei eusten lagunduz.
- Ingurumenaren aldetik jasangarria izatea: ingurumen-eragina eta energia-konsumoa murriztuz eta energia-trantsizioa aukera bat izan dadin lortuz.
- Produkzioaren aldetik dibertsifikatua izatea: sektore gutxi batzuen inguruan elkartzea gaituz eta tarteko osagaiak fabrikatuz soilik indartsuak ez izatea lortuz.

- Euskal Herrian errotuta egotea: gure premia eta erabakietara egokitutako Euskadiko industria-politikarekin eta lan-harremanen berezko esparruarekin. Gure herrialdeari atxikita eta gure herrialdea errespetatuz.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Industria-politikak industria-eredu berri bat lortzera bideratuta egon behar du. Eredu horrek osagai teknologiko handia izango du, lurraldearen eta produkzioaren aldetik dibertsifikatuta egongo da, ingurumena errespetatuko du, energia gutxiago kontsumituko du, gizarte-arloan eta zerga-arloan arduratsua izango da, euskaldunagoa, berdinzaleagoa eta parte-hartzaileagoa izango da. Hori guztia lortzeko, gizarte-ekonomia eta tokiko garapena sustatu beharko ditu gizarte-eragileekin hitz eginez eta adostuz eta ondo koordinatuta egoteaz gain, ikuspegi estrategikoa duen lidergo publiko baten gidaritzapean.

Helburu orokorrak ildo orokorrekin elkartzeak honako neurri hauek proposatzeko bide ematen digu:

- Eskualdeak: Bizkaiko eskualdeen berrindustrializazioak lehentasunezko helburua izan behar du. Bizkaiko Foru Aldundiak Ezkerraldea-Meatzaldeko Plan Estrategikoari laguntzea (20 milioi euro bideratuko ditugu). Eremu horietako industria-lurzoruari garrantzia ematea, esate baterako Gernikako Ibarrari eta Basauriko Baskoniari. Inbertsioak erakartzeko politika. Arlo guztietako diskriminazio positiboa egitea alde behartsuenei. Proiektu bultzatzaileak ezar daitezten lortzea.
- Industria-lurzoruaren eskaintza arrazionalizatzea: dagoen lurzoruaren inbentarioa egitea, deskontaminatzeko premia duten lurzoruak deskontaminatzeko. Eskaintzaren eta premien ebaluazio errealista egitea. Inbertsioak alde behartsuenetara bideratzea. Aldundiak gainbegiratu du lurralde-antolamendua norabide horretan egiten dela, hau da, industria-lurzoruaren eskaintza behar adinakoa eta orekatua izatea eta industria-lurzorua hirugarren mailakoa bihur dadin saihestuz.
- Ingurumen arloan, gure lurraldean lindanoak utzitako arrastoa ezabatu nahi dugu. Horregatik, lindanoarekin kutsatutako lursail guztiak identifikatu nahi ditugu, herriz herri eta kutsadura garbitzeko ahaleginak egingo ditugu, arduradunei erantzukizuna eskatuz.
- Behargintza Eskualdeko sustapen-agentzien sarea sustatzea. Finantzaketa eta koordinazioa hobetzea. Mapa arrazionalizatzea agentziak sortuz edo agentziak errepikatzen badira, elkarrekin batuz. Eskualde guztietan planak garatzea, tokiko agenteek parte hartuz eta industria-politikaren azterketa espezifikoa eginez. Industria-enplegura bideratutako prestakuntza sustatzea. Politika guztien emaitzak ebaluatzea etengabe.
- I+G+Bn %3ko inbertsioa egin dadin lortzea. I+Grako laguntzei buruz ETEei ematen zaien informazioa hobetzea. Ikerketaren kultura sustatzea, zentroei eta proiektuei laguntzea. I+Gn inbertsioa egin dadin sustatzea lortzeko eragile publikoak, akademikoak, gizarte-arlokoak

eta enpresa-arlokoak elkarrekin ari daitezen laguntzea. Sektore helduagoak dituzten eskualdeetan teknologia-enpresak ezar daitezen sustatzea.

- Krisian dauden enpresei arreta emateko protokolo integrala: Industria-krisien aurrean esku-hartze sistematikoa izatea. Enpresa-batzordeetara hurbiltzea eta haiei laguntzea. Eusko Jaurlaritzarekin koordinatzea. Langilei aholku ematea. Zuzeneko inbertsioko eskaintzak egitea. Enpresari jarduera berarekin edo beste jarduera batekin eusteko proiektuei laguntzea. Porrot egin duten enpresak abian jarri nahi dituzten langileei babesa ematea. Industria-sektorean beste lanpostu bat emateko bermeak.
- Foru Aldundiaren inbertsio-funtsak enpresak sortzeko eta finkatzeko. Arrisku-kapitalaren eta garapen-kapitalaren funtsak indartzea. Hasierako laguntza ematea enpresak sortzeko eta enpresa estrategikoetan industria-partaidetzak eskuratzea. Beste funts publiko batzuekin koordinatzea.
- Arriskuan dauden enpresentzat 50 milioi euroko funtsa sortuko dugu.
- Energia-trantsizioa. Energia-trantsizioaren esparrua sustatzea. Energia-kontsumoa eta ingurumen-eragina murrizteko proiektuei lagundu dakien lehenestea. Energia-trantsizioaren premiez baliatzea sektore berriak sustatzeko: enplegu berdea, energia berriztagarriak. Tokiko eta gizarte-izaerako energia-enpresei eta sortze deszentralizatuari laguntzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen-eremuan garraioaren elektrifikazioaren eraginari buruzko azterketa bat egitea: garraio publikoa, errepideak, Foru Aldundiaren flota... Kalteak eta aukerak aztertzea. Bizkaiko industria eta antzemandako premiak elkar daitezen lortzea.
- Barneko energia-auditoria: Aldundiko instalazioen, ibilgailuen eta jardueraren eragina ebaluatzea eta murriztea, berriztagarriak jarriz, ibilgailu elektrikoak erabiliz...
- Lanbide Heziketako zentroyen maparen erradiografia egitea premiak antzemateko eta premia horiek Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean arituz konpontzeko. Guk uste dugu beharrezkoa dela Gernikan eta Enkarterrin zentro berriak ezartzea. Etengabeko prestakuntza eta formakuntza Duala bultzatuz.
- Bertako produktu jasangarria erostearen kultura sustatzea, euskal industriari erostea lehenetsiz, BFaren beraren erosketa-politikatik hasita eta gizarte osoaren filosofiara hedatuz.
- Emakumea industria-eremuan sar dadin sustatzea (gaur egun %20 soilik). Emakumeak STEM eremuan sartzen laguntzea. Gizartea sentsibilizatzea, berdintasun-klausulak sartzea, berdintasun-ziurtagiria eskatzea kontratatuz. Foru Aldundiko enpresetako, partaidetzako enpresetako eta beste erakunde batzuetako zuzendaritza organoetan ordezkartza paritarioa izatea. Emakumezko enpresaburuen elkarteekin eta sindikatuetoako berdintasun-arloekin zuzeneko harremana izatea.
- Industria-eremuan euskararen erabilera sustatzeko politikak: mintegiak, argitalpenak, eguneroko erabilera...
- Bizkaiko industria-sektoreak Euskal Herriko gainerako lurraldeetako industria-sektoreekin sinergiak izan ditzan sustatzea. Made in Basque Country marka modu partekatuan indartzea euskal industriaren kanpoko irudia indartzeko.

- Deslokalizazioak: deslokalizazioen aurkako foru-araua zorrotz aplikatzea. Laguntza publiko oro jasotzeko baldintza lurraldean jarraitzea eta gizarte-funtzioa betetzea izatea.
- Enpresa Txiki eta Ertainei aholkularitza eta laguntza emateko plan espezifikoak laguntzak eskuratzeko, berrikuntzarako, nazioartekotzeko...
- Kooperatiba-ekonomia eta gizarte-ekonomia sustatzeko plan espezifikoak eta ekonomia mota hori industria-alorrean sartzea edo finkatzea.
- BBK fundazioaren gobernantza demokratizatzea Kutxabanken kudeaketa euskal industriaren premietatik hurbilago egoteko. Kutxabanki eskaera espresua egitea partaidetzako enpresen zorroa legezko gehienekoetan eusteko eta BBKri eskatzea industria-inbertsioko bere funtsa sor dezala eta industria-enpresen errotzea indartzera bideratutako funts publikoetan parte har dezala.
- Teknologia-dukia duen gune bat sortzea industriarako edo Bizkaiko Teknologia Parkearen azpi-egoitza bat lehen Babcock Wilcox enpresa kokatuta zegoen Galindoko eremuan (Sestao-Trapagaran) eta lur mugakideetan.
- Durangaldean energia berriztagarriekin eta airearen kalitatearen hobekuntzarekin lotutako parke zientifikoa eta formakuntzarako gunea bultzatuko dugu.

ELIKADURA BURUJABETZA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Azken 40 urte hauetan lehenengo sektoreak Europako eta bertako politiketik bultzatuta, nekazaritza, basogintza zein arrantza munduak pisua galduz joan da, hau baserritar eta arrantzale galeran eta nekazaritza lurren galeran nabarmendu da.

Lehen sektorea testuinguru askotan eztabaidetatik kanpo geratu da ekonomian duen pisu "eskasagatik", elikaduraren beharra eztabaidetatik at geldituz eta ondorioz plangintza gehienetan nekazaritza eta arrantza baztertu dute eta nekazaritzarako behar diren lurak gehienetan beste aktibitate batzuetara zuzendu dira.

Gure herrian, produktuen eraldaketaren politika okerrak bultzatu dira, sektore produktoreek lehen gai merkeak ekoizteari bultzatu dira, hori lortzeko sektoreen kontzentrazioa, espezializazioa eta industrializazioa bultzatu izan da, eta prozesu guzti honen emaitzak baserritarren galera izugarria izan da.

Industria eraldatzaile handiak eta azpi-sektoreka ia bakarrak sortzea izan da politiken obsesioa, lehen gai merkeak topatu nahian sektorea zapuztu eta munduko beste edozein tokitik ekarriak izan dira, transformazioa garatu da eredu industrial bat jarraituz baina lehengaien ekoizpena beste

plano batean geratu da. Transformazio egitura txikiak desagerrarazi egin dira errentagarritasun gutxikoak zirelakoan eta osasun legeak gaizki aplikatuz horrela baserritarren beharrei jaramonik egin gabe egitura handiak garatu dira.

Honekin batera, nekazaritza inongo laguntza teknikorik gabe geratu, garai batean sortutako egiturak PAC kudeaketan eta lan burokratikoak egiten geratu dira, aholkularitza, transferentzia alde batera utziz.

Ekoizpen eredu errentagarria garatzeko izan behar zuten diru laguntzak askotan landa eremuko beste aktibitate batzuk garatzeko erabili izan dira landa garapenerako programak.

Argi dago orain artekoak ez duela sektore indartsu bat eraikitzeko balio izan, beraz bide berriak jorratu behar dira. Eta beste herrialde askotan geratzen ari den moduan, baserritarrak desagerrarazi eta nekazaritza lurra agortzen duen garapen ekonomiko baten aurrean elikadura burujabetzaren aukera dago elikadura burujabetzarantz gure bidea egiten lagunduko digun lanabesa agroekologia izanik.

Baserritarren eta kontsumitzaileen beharretan oinarritutako tokiko elikadura sistemak eraikitzean da gakoa.

HELBURU OROKORRA

Elikadura burujabetza, enplegua, ondasun naturalak, tokiko garapena, tokiko elikadura sistemak, agroekologia, eraldaketa, merkaturatzea, politika publikoak.

- Tokiko elikadura sistema iraunkor, justu eta osasuntsuak eraiki behar dira Elikadura Burujabetzaren norabidean urratsak eman eta ekoizpen eta kontsumoaren planifikazioaren baitan elikagaiak fisikoki zein ekonomikoki eskuragarri izateko.
- Elikadura oinarritzko beharra izanik, Euskal Herriak elikadura osasuntsu baten bermea izan behar du, herri gisa etorkizuna izan dezan.
- Nekazaritza, basogintza, eta arrantza iraunkor eta herrikoia sustatu behar da agroekologiaren eta arrantza selektiboaren bidetik, baserritarren eta arrantzaleen bizi eta lan baldintza duinak bermatu eta herritarrekin gertutasunean eta konfiantzan oinarritutako ereduak eraikitzeko.
- Lana eta baliabide natural eta ekonomikoak banatu Euskal Herriko txoko guztietan ahalik eta nekazari eta arrantzale gehien egoteko, nekazarien eta arrantzaleen lan eta bizi baldintza duinak eta jatorrizko funtzio soziala bermatuz.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- ONDASUN NATURALAK: Kudeaketa kolektibo eta publikoa bultzatu
 - Lurra:
 - Nekazaritzarako egokiak diren lurak bestelako interesen aurrean nekazaritzarako babestea, inbentario bidez sailkapen eta kalifikazio zehatua eginez eta babeserako eraginkorrak diren mekanismoak martxan jarriaz.
 - HAPOetan lur ez urbanoa aztertu, sailkatu eta nekazaritzarako diren babes figura berriak sortu.
 - Lurralde antolaketarako lanabes ezberdinetan (DOT, PTS , PTP) nekazaritza eta basogintza babeserako neurri eta plangintza zehatzak landu.
 - Lur funtsa lurrez hornitu eta beharra duten baserriarren esku jarri. Lurren esleipenerako irizpideak zehaztu (emakumeak, gazteak, berriak, agroekologikoa, lurren banaketa duina ...).
 - Nekazaritza eta basogintza lur erosketa publikoko politika martxan jarri.
 - Lur industrial berririk ez sortzea, aurrez erabiliak, eta abandonatuak dauden lurak erabili aurretik.
 - Ura:
 - Uraren zikloa osoa publikoki kudeatzeko politikak bultzatu
 - Kudeatze publikoko adibideak bultzatu, indartu eta babestu.
 - Uraren kontsumoaren jasangarritasuneko nekazaritza modeloak bultzatu.
 - Bioaniztasuna
 - Prospekzioan lagundu, herrian gordetzen diren tokiko hazi, barietate eta arraza ezagutzeko.
 - Babeserako erreferentzi ortuak sortu eta kudeatu.
 - Hazien, barietateen eta arrazen banku publikoak bultzatu
 - Elkartrukatzerako guneak sortu. Bertoko nekazaritzaren “komunikazio jardunaldien” barruan sartu horrelako ekimenak.
 - Udal ortuak dauzkaten herrietan, bertoko barietateekin lan egiteko aukera bultzatu.
 - Basogintza
 - Baso politika jasangarri bat aurrera eraman hiru neurrietan oinarrituta:
 - ✓ Bizkaiko Basogintza Foru Araua aldatzeko proposamena berriro aurkeztu eta aurrera eraman.

- ✓ Baso laguntzen planen oinarrizko aldaketak, gure proposamenaren ildoak jarraituz. (Ingurugiro zerbitzuen ordainketak, neurri garrantzitsu bezala ekarriz). Jabe pribatuei aukera berriak eskainiz
 - ✓ Udalen mendi publikoetako kudeaketa planen definizioa, diseinu, lizitazioa, eta parte-hartzea berreskuratu eta aurrera eraman, gure herrietako mendien etorkizuna, herritarrekin batera, jasangarritasunean eta aniztasunean diseinatzeko.
 - Basogintza sostengarrirako Plan Teknikoak landu, Inbentarioa, Helburuak eta neurri zehatzekin.
 - Bertoko basoaren berreskurapena edota sustapena (kontserbaziorako edota ekoizpenerako)
 - Mono-erabileran ez jausi. Baso Lur berak egurretarako, abeltzaintzarako, perretxiko bila ibiltzeko balio dezake, ...
 - Udal tasen bidez eta HAPOn bitartez, basogintza sostengarria mesedetu
- TOKIKO ELIKADURA SISTEMAK, burujabetasunaren oinarria.
 - Tokiko elikadura-sistema iraunkor, justu eta osasuntsuak eraikitzeko plan integralak behar dira, ekoizpenaren hasieratik kontsumoa burutzen den momentu arteko fase guztiak izan behar dira kontuan. Bestelako ikuspegiak lantzea interesgarria da ere, gastronomia eta turismoa adibidez.
 - Fase bakoitzean parte hartzen duten aktore desberdinen arteko elkarlan zabal batetik antolatu daiteke gisa honetako plan integral bat, baserritar, arrantzale, herritar, kontsumitzaile elkarte, merkatari, LGE, Garapen Ekonomikorako Elkarte, bestelako eragile, administrazio eta abarren arteko elkarguneak sortu eta egitasmoak martxan jarriaz.
- EKOIZPENA: Nekazaritza iraunkorra babestu eta bultzatu.
 - Kalitatezko elikagaiak eta ingurugiroarekiko begirunea kontuan hartzen duena.
 - Dauden lanpostuei eusteak eta lanpostu berriak sortzeak, berezko giza kapital ahulenak (emakumeak, nekazari gazteak, etorkinak) benetan babestuz.
 - Eredu intentsiboetatik iraunkorragoetara bidea egiteko estrategia zehatza.
 - Emakumeak nekazaritzara etortzeko politika.
 - Gazteek lehen instalazioa osatzeko errazteko laguntzak.
 - Baserrien eskuz aldatzerako eta errazteko politika
 - Transgenikoak pertsona eta animalien elikadura katean ez erabiltzearen aldeko konpromisoa hartu, horretarako epe motz eta ertainera begirako egitasmo desberdinak martxan jarriaz.

- **ERALDAKETA:**. Nekazari, abeltzain eta arrantzaleen ekonomiari balore gehigarria eranstendiona
 - Eraldaketarako gaur egun dauden osasun araudiak malgutu, Europako osasun direktibak planteatzen duten bezala eta inguruko beste herrialdeetan egiten den moduan, baserriarren produkzioak ahalbideratzeko.
 - Herri edo bailara mailan eraldaketarako proiektuak sustatu, edo daudenak lagundu.
 - Haragi sektorean, oinarrizkoak diren azpiegitura publikoak bultzatu: hiltegiak, zatitze gelak...

- **MERKATURATZEA:**. Nekazari, abeltzain eta arrantzaleen ekonomi zikloa osatzen duena .
 - Arrainaren salerosketarako kofradiek behar dituzten azpiegitura egokiak bermatzea, kofradien aldeko apustu garbia eginez.
 - Baserriar – arrantzale eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzenak bultzatu. Herrietako asteko azokak indartuz azpiegituraz baliatuz.
 - Kontsumo kolektibo eta publikoa bertoko produktu ekologikoari esleipenen bitartez lotu.
 - Elikagaien erosketa publikoa burutzen diren lekuak identifikatu, berauen eskumenak eta baldintzak zeintzuk diren aztertu eta gertutasun, kalitate eta ingurumen irizpideak kontuan hartuta inguruko baserriar eta arrantzaleen produktuak erabiltzen hasi herriko merkataritxikiekin bestelako produktuak osatuz.
 - Udalak edo Aldundiak babestutako edozein ekintza gastronomikotan bertako baserriarren eta arrantzaleen produktuak erabiltzeko konpromisoa posible denean era agroekologikoan eta arratza arduratsu bitartez ekoiztutakoak lehenetsiz.

ZERBITZUAK ETA TURISMOA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Landunen %15-20 autonomoak/ekintzaileak dira eta garrantzi handia dute sozioekonomian. Zehazki, EAEn, autonomoen tasa %19 zen 2016an, 175.000 landun; horietatik 55.000 kooperatibistak dira, eta gainerakoei dagokienez, autonomo gehienak zerbitzuetan aritzen dira (merkataritza, ostalaritza, gremioak,...). Oso politika gutxi bideratzen dira autonomoengana eta autonomoek ekonomian duten garrantzia kontuan hartzen badugu, esan behar dugu beharrezkoa dela lehenetsunez eta espresuki pertsona horiengana bideratuta dauden politikak abian jartzea.

Langabezia-tasarekin alderatzen badugu, ikus dezakegu langabezia-tasa handiak dituzten herrialdeek autonomo-tasa handiak dituztela, eta, alderantziz, langabezia-tasa txikiak dituzten herrialdeek autonomo-tasa txikiagoak dituzte. Beraz, ondoriozta dezakegu Lan Autonomoa aukera bat dela langabezian dauden pertsonentzat, betiere lan horrek politika publiko egokien laguntza jasotzen badu. Ezinbestekoa da proiektu bideragarri bat duen ekintzailea edo autonomoa irteera faltsuetatik, batzuetan erakundeen enplegu-planek babesten dituztenetatik bereiztea. Irteera horiek langabezia-zifrak aldi batean itxuraldatzeko besterik ez dute balio eta gerta daiteke protagonistak hasieran zeuden egoeran baino egoera okerrago batean bukatzea.

Oso kezagarria da sektore askok azken urte hauetan bizi duten egoera: langileek jasaten dituzten lan-baldintzak txarrak dira, negozioak ixten ari dira etengabe, ez dago txandarik, handiak ez dio lekurik uzten txikiari...; aldatu egin behar da egoera hori.

Turismoari dagokionez, argi dago zer ondorio izan dituzten orain arte jarraitu diren politikek: turismoa ohiko hiriguneetan eta kostaldeko herrietan biltzen da EAEn eta jasangarritasun-irizpideetatik urrun dago.

Turismoa lehen mailako jarduera ekonomikoa da, gure BPGan %5etik zertxobait gorago dagoena. Gorantz egiten ari den eta etengabe bilakatzen ari den sektore ekonomikoa da. Ia sektore ekonomiko guztiak bezala, turismoak abantailak eta eragozpenak ditu: Berehalako eragozpenak masifikazioa, enpleguaren prekarizazioa eta kontratatzeko nahiz ostatu emateko eskaintza berrietarako erregulaziorik ez izatea dira.

Hainbat sektoreren artetik, turismoa lanpostuak sortzen dituen eta deslokalizatu ezin den sektore bakarretako bat da. Gure turismo-eskaintza ezin da beste inora eraman. Horregatik, jakin behar dugu baliabide horrek bere mugak dituela eta ezin dugula zentzugabeki ustiatu. Gaur egun indar batzuk ditugu: turismoa gorabidean dagoen sektore bat da eta baliabide horrek potentzial handia dauka; indar horretaz baliatu behar dugu turismo jasangarriaren, zuhurraren eta zentzuzkoaren alde egiteko.

HELBURU OROKORRA

Beren jarduera zerbitzuetan betetzen duten langile eta profesional asko autonomoak dira eta politika publiko eraginkorrak behar dira pertsona horien lanaren garrantzia azpimarratzeko. Autonomoaren/ekintzailearen figura duin bihurtu behar da, aberastasuna sortzen duen pertsona delako; horretarako, gaur egun daukan gizarte-babesa areagotu egin behar da.

Turismoari dagokionez, sektoreko agente guztiek onetsi zuten lege bat onartu genuen, eta baliabide guztiak jarri behar dira lege hori garatzeko, irizpide orekatu eta jasangarrietan oinarrituz une oro.

Horri dagokionez hartu behar diren neurriak izango lirateke eskaintza dibertsifikatu eta arrazoizko bat egitea, turismoa industriatzat hartuta (halaxe baita) eta industria gisa arautuz; prestakuntzan oinarrituta dagoen enplegua eta lan-baldintzen hobekuntza sustatuz; izan ere, zerbitzu-sektoreak, bere atomizazioa dela medio, are gehiago pairatzen ditu lan-merkatuaren baldintza negargarriak.

Azkenik, ostatu emateko modu berriak, hala nola etxe turistikoak, hostelak, caravaninga eta aterpeak, arautu egin behar dira hotel tradizionalak, landa-turismoa eta kanpinak araututa dauden bezala, ostatatze mota horiek arazotzat har ez daitezten. Halaber, teknologia berrien erabilera administrazioek arautu behar dute erabiltzaileen eskubideak bermatzeko eta turismoaren azpiegitura guztiei eusten laguntzeko. Etxe turistikoen kasuan, ezinbestekoa da jarduera horren garapena kontrolatzea turismo-eskaintzak bizitegi-eskaintza ez ordezteko eta turistei ostatua eskaintzearen tokiko biztanleek auzo osoak ez hustu behar izateko eta handik ez mugitu behar izateko.

Dena den, turismoak aukera asko eskaintzen ditu: Aukera ekonomikoak, kultura-ondarea eta arte-ondarea hedatzea eta kontserbatzea, bertako gure produktuak eta gure gastronomia sustatzea, gure natura-ingurunea eta paisaia-ingurunea zaintzea eta hobetzea, eta herrialde gisa saltzea gure burua.

Gure turismo-eskaintza egiteko, ezin dugu soilik aipatu gehien ezagutzen dena: hiri handiak; badaude beste baliabide eta esperientzia batzuk ere hirietan aurki daitezkeenak bezain onak edo hobeak direnak. Euskal Herria osoa, nondik gatozen, nortzuk garen eta norantz joan nahi dugun eman behar dugu ezagutzera. Horregatik guztiagatik, turismo-fluxuak beste helmuga batzuetara berbideratzeko eta jarduera-aniztasuna duen turismo multimarka bat turismo-helmuga berean eskaintzeko unea iritsi da.

Laburbilduz: turismo-jardueraren kudeaketa arduratsua eta garapenarekin lotuta ez dagoena egin behar da, fluxuen lurralde-dibertsifikazioa (fluxuak turistikoki hain aktiboak ez diren lekuetara bideratuz eta saturaziotik hurbil dauden lekuetan presioa deskargatuz) eta urtarokoa ez izatea bilatuz, turistak gurean urte osoan izateko. Turismoa kulturalki eta ekonomikoki aberasten duen jarduera bat da, baina ingurumenaren eta gizartearen alorrean arazoak sor ditzakeena, baldin eta arrazoizkoa denaren mugak gainditzen baditu. Turismoak aberastasuna eta enplegua sor ditzake, baina ez du hiri-inguruneetan tokiko biztanleriaren bizi-kalitatea galtzearen eta natura-ingurunea aldatzearen kontura egin behar.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Turismoari buruzko plan estrategikoak garatzea, euskal legea ikuspegi jasangarri, sozial eta arduratsu batekin garatuko dutenak.

Turismoak duen garrantzi ekonomikoa eta ahalmena ezagutzeaz gain, enplegua sortzea eta abar ahalbidetuko duten diagnostiko zehatzak egitea neurri zehatzak definitzeko eta garatzeko abiapuntu gisa. Neurri horiek honako hauek bildu ahal izango dituzte:

- Turismo-bulegoen eskaintza dibertsifikatzea era askotako jarduerak sustatuz modu ordenatuan eta jasangarrian. Jarduera horiek egon litezkeen merkatuak hartuko dituzte kontuan eta gure kultura-ondare aberatsarekin antolatuko dira, natura-ingurunea eta lehen sektorea errespetatuz beti.
- Lurraldeko turismo-eskaintzaren aniztasuna ezagutzera emateko kanpainak abian jartzea, turismo-fluxuak banatzeko berariazko asmoa izanik.
- Gune edo mekanismo espezifikoak sustatzea hainbat gizarte-eragileek, baserritarrek, arrantzaileek, tokiko garapen-agentziek eta turismo-sektorearen ordezkariak parte hartzeko planak eta programak definitzen, esate baterako, turismo sektore mahai parte-hartzaileen eta zeharkakoen esparruan.
- Dagoen araudia garatzea eta falta dena sustatzea turismo jasangarriaren, arduratsuaren eta dibertsifikatuaren eredia indartzen jarraitzeko.
- Premiak diagnostikatu ondoren, genero-ikuspegia duten etengabeko prestakuntza-planak sustatzea eragile interesdun guztiek parte hartuz.
- Zerga-alorrean ahalegin ikuskatzailea areagotzea Internet bidez kontratatutako turismo-jarduerari dagokienez eta zerbitzu horiek eskaintzen dituzten plataformei dagokienez, eremu horretan erantzukizunak behar bezala hartuko direla bermatzeko.

Elkarlanean aritzeko barneko eta kanpoko sinergiak ezartzea:

- Udalen eta Mankomunitateen, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa indartzea gure turismo-eskaintza aurkezteko modu koordinatuan, bikoiztasunik gabe eta baliabideak optimizatuz.
- Sareko lana sustatzea sektoreko operadore guztien artean gure ingurunean, aliantzak sortuz.
- Turismo-ekintza Nafarroarekin eta Iparralderekin koordinatzea turismoaren euskal eredu bereizia, kalitatezkoa eta jasangarria eskaintzeko.
- Europako beste leku batzuekin sinergiak sortzen lan egitea, gure turismo-eredua sustatzeko.

Laguntza ekonomikoetako ildoak eta etengabeko aholkularitza-zerbitzuak ezartzea gure ereduarekin bat datozen turismo-zerbitzuak eta enpresak sustatzeko:

- Sektorean lan egiten duten pertsonen prestakuntza sustatzea
- Turismo-enpresei eta zerbitzu-enpresei (gehienak txikiak eta ertainak) laguntzea, baita teknologia berriak sartzen ere, teknologia horiek etengabe ari baitira bilakatzen sektore honetan.

Gure indarrak bultzatzea eta gure turismo-baliabideak sustatzea

- **Natura:** Bizkaiko natura-inguruneak indar handia dauka eta bisitariak gure herrialdera erakartzeko balio du. Ingurune osoa zaindu behar da, eta turismo-baliabide naturalen babesa eta zaintza, baliabide horietarako sarbidea, zaintza eta kontserbazioa sustatu behar da.
- **Barneko turismoa:** Lurraldean landetxe-sare egokia dagoen arren, potentzial handia dauka oraindik, bereziki hainbat eskualdetan, esate baterako Enkarterrin edo Meatzaldean. Turismo berdeak ibilbide oparoa dauka, Nafarroan, Asturiasen eta beste leku mugakide batzuek lortu dutena ikusi besterik ez dago, leku horietan okupazio-indizeak gureak baino handiagoak baitira.
- **Kostaldeko turismoa:** Euskal kostaldea, eguzkia eta hondartza dituen helmuga ez bada ere, garrantzi handiko turismo-arkua da Hegoaldetik Iparraldera. Euskal kostaldeko paisaiaren eta hondartzen erakargarritasun naturalari eta bertako herrien eta hirien xarmari esker mugaz haraindiko baterako eskaintza egin daiteke azpimarka zehatz batekin: Euskal Kostaldea, Côte Basque,...
- **Industria-turismoa:** Industria Bizkaiaren nortasun-ezaugarrietako bat da, iraganean eta orain. Turismoak eta industriak elkarrekin ahalbidetuko lukete industria-ondare aberatsa suspertzea, bereziki Ezkerraldean, Meatzaldean edo Bilbon, eta, aldi berean, turismo-fluxua bisitariz beteta ez dauden eta suspertze ekonomikoaren premiak dituzten lekuetara bideratuko luke.
- **Gastronomia:** Euskal sukaldaritza, gaur egun, ezaguna da mundu osoan. Gure produktuen kalitatearengatik ere ezagutzen gaituzte. EAEko, Iparraldeko eta Nafarroako lurraldeen artean elkarlanean aritzeko estrategiei aurre egiteko unea iritsi da. Euskal lurralde osoan egiten den Idiazabal gazta edo Txakolina horren erakusgarri da, baita landare-kontserbak eta arrain-kontserbak, Errioxako ardoak eta bestelakoak ere.
- **Oraindik gehiago eskain dezake:** kostaldeko turismoa eta paisaia-turismoa; turismo berdea eta natura-turismoa Bizkaiko barnealdean; lehen sektoreko produktuen potentziala eta sukaldaritzaren sustapena Bizkaian, gaur egun beste lurralde batzuetako sukaldaritzaren maila berean dagoena, edo itsasadarra turismo-ardatz gisa, garatu behar diren erronka batzuk dira berezko marka duen eta gure ingurunearekin sinergian dagoen turismoa garatzeko.

Zerbitzuen sektoreko langileen egoera sozio-laborala duintzea

- Lan-hitzarmen duinak eta bidezkoak lortzearen aldeko borroka egiten laguntzea eta lan-harremanen eta gizarte-babesaren berezko esparru bat aldarrikatzen jarraitzea.
- Hotel-kate handietan zerbitzu batzuen azpikontratazioa, hala nola garbiketaz-zerbitzuaren eta ikuztegi-zerbitzuaren azpikontratazioa, zaintzea lan-ikuskatzailetzak, indarrean dauden hitzarmenak bete ditzaten.

- Sektorean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko premia defendatzea; horretarako, kontziliazio-neurriak, laguntza espezifikokoak eta abar ezarriko dira, besteak beste.

MERKATARITZA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Bertako merkataritzak egoera zaila bizi du gaur egun, eta bidegurutze batean dago gainera. Barne-kontsumoak oso jaitsiera handia izan zuen krisialdearen ondorioz, eta aldaketa handia gertatu da herritarren kontsumitzeko ohituretan.

Egoera orokor honen aurrean, tokiko merkataritza bultzatu beharreko jarduera da gure ustez. Batetik, aipatu bezala, herriei, auzoei eta kaleei bizitza ematen dielako eta harreman pertsonalak garatzeko aukera gehiago ematen dituelako. Tokiko merkataritza ekologikoa da, oro har, globalizazio ekonomikoaren produktueterako egina ez dagoelako eta ordutegiaren aferak erakutsi duen moduan.

Azalera handiak irekitzen direnean, lanpostuak sortzen direla esaten digute, baina oro har ahaztu egiten da bertako merkataritzan zenbat jende lan egiten duen eta zein garrantzia daukaten gure herrien ekonomian.

Azalera handiko merkatal zentroak sistema kapitalistak bultzatzen duen kontsumismo basatiaren isla dira. Erosketa eta aisialdia uztartu nahi dituen filosofia bera, horren isla nabarmena da, non proposatzen zaigun aisialdia kontsumoan soilik oinarrituta dagoen.

Oro har, azalera handi hauek mundu mailako enpresa eta produktuentzat gune edo saltoki dira, izan ere era honetako merkatuguneetan ekoizle txikiak baldintzak hain zorrotzak dira euren produktuak saltzeko oso aukera gutxi dituztela.

Herri askotan dendari, kontsumitzaile eta merkatarien elkarteak sortu dira eta elkarlana helburu duten neurrian eta sarri jarduera soziala eta kulturala bultzatzeko egitasmoak lantzen dituztelarik, gure babes osoa behar dute izan. Merkatariei elkarteekin batera elkarlana bultzatzea garrantzitsutzat jotzen dugu, baita gure eredu sozial eta ekonomikoaren norabidean urratsak eta ekimenak bultzatu eta laguntzeko ere.

HELBURU OROKORRA

Udalekin, eskualdeko mankomunitate edo garapen agentziekin eta erkidegoko gobernuaren inplikazio ekonomikoaz, herrialdeko tokiko merkataritza eraberritzeko eta bultzatzeko plan estrategikoa burutzea dugu helburu.

Bertako merkataritza bertako produktuen salmentarekin batera sustatzea dugu helburu, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko lotura gertuko merkataritzaren bidez burutuko delarik.

Langileen prestakuntza, teknologia berrien aplikazioa eta etengabeko berrikuntza besteren artean, abiatu beharreko baliabideak dira. Gainera, eskualdeen arteko elkarlanak, bai eta merkatarari edota ostalarien elkarrekin bultzatzen dituzten egitasmo sozial eta kulturalak bultzatzeak, merkataritza logika sozialaren bidean jarri beharko gaituzte.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Tamaina txiki eta ertaineko hurbiltasuneko merkataritza-eredu bat bultzatzea, jasangarria eta bidezkoa.

- Pestakuntza-prozesuak modu parte-hartzailean diseinatu eta martxan jartzea sektoreko langileak profesionalizatzeko.
- Laguntza-ildoak martxan jartzea saltoki txikia mantentzeko eta jasangarriak izan daitezen, gune degradatuen edota herrigune historikoen biziberritzea eta merkataritza-garapena bereziki azpimarratuta.
- Laguntza ekonomikoak sustatzea merkataritza txikiak teknologia berrietan inberti dezan eta I+G+Bko proiektuetan garatzeko.
- Diru-laguntzak eta bestelako neurriak egoera larrian aurkitzen diren tokiko merkatarientzat.
- Merkataritza digitalaren fiskalitatea garatzearen beharra.
- Tamaina txiki eta ertaineko merkatarien elkarteak sortzeko aukera bultzatzea, eta merkatarien elkarten izaera sozial eta kulturalako ekimenak babestea eta bultzatzea.
- Eragile guztien arteko hitzarmen eta akordioak sustatzea, lan- eta gizarte-baldintza duinak ahalbidetuko dituztenak sektoreko langileentzat.
- Eskualdeen arteko sinergiak bilatzea zerbitzu jakin batzuetarako.
- Sektore berriak bultzatzea, bidezko merkataritzako sareak zabaltzea, dagozkion produktuen merkaturatzea bultzatuz.
- Tokiko merkataritza sustatzeko kanpainak eta kontsumo-bonoak bultzatzea.

Toki-politikak hurbiltasuneko merkataritzaren alde.

- Klausula sozialen bidez bultzatzea Administrazio Publikoek egiten dituzten erosketak, lurraldeko saltokietan egin ditzaten.
- Tokiko diruaren erabilera bultzatzen jarraitzea hurbiltasuneko saltokietako erosketetan erabiltzeko.
- Tokiko lurralde-antolamenduko planen bidez saltoki txikien ezarpena erraztea azalera handien kaltetan (azalera handi horiei baimenak emateko eragin sozial eta ingurumen-arlokoak kontuan hartuko dizuten merkatu-azterlanak eskatuz).

HERRI JASANGARRIA

HONDAKINAK

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Hondakinak eta bere kudeaketa gai konplexua bezain periferikoa da. Bizkaia, Bilbotik hasita, Azkunaren printzipioen eraginaz bustita dago oraindik: zuk zaborra bota, eta ahaztu guztiaz, gu arduratzen garelako.

“Gu arduratzen garela” horrek arduragabekeria eta pasotismoa joeran arindu ditu Bizkaian.

Aipatzekoa da EAE mailan Hondakinen legerik egon ez izatea, eta Eusko Jaurlaritzaren papera guzti honetan. Honen ondorioz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeek beren kudeaketa eredu propioa eta berezitua dute, herri ikuspegitik inolako zentzurik duen sistema aspaldiko partez indarrean egonik.

Gaur egun, EAEn bizi dugun egoera kafkianoa (Zubietako errauskailua kasu) saihesteko, ingurumen azpiegiturak erkidego mailan pentsatu eta diseinatu beharko ziren. Non dago Jaurlaritzaren lidergoa guzti honetan? Ez da existitzen. PNVk ederto dakielako baliabide baliotsu eta negozio iturri izugarria direla hondakinak.

PROCESO DE TRANSICIÓN



Fuente: Unión Europea, 2018.

Hondakinak baliabide izateaz gain, hauen sorrera gutxitzeko erronka serioki hartu behar dugu herri moduan, ekonomia linealetik (non produktuak sortu, kontsumitu eta botatzeko diseinatzen diren) ekonomia zirkularrera (kontsumorako produktuek sortu aurretik, diseinutik berrerabilpena eta birziklapenerako prestatuak izan daitezen) trantsizioa egiteko premiari erantzunez. Gauzak horrela, gure ehun produktiboarekin (PYME, enpresa handiak, ...) ildo estrategikoa garatuko dugu Bizkaian ekoizten diren produktuek ekonomia zirkularraren logikan txertatuak izan daitezen.

Aurreko guztiak, zaildu egiten du Bizkaian ganorazko eztabaida ematea, bai sozialki bai politikoki.

Baina eztabaida oso beharrezkoa da, Bizkaiko eredia etorkizunik ez duen eredia da: iluna eta modu interesatuan moldatutako datuetan oinarrituta, Zabalgarbi errauskailuan oinarritutakoa, Europak ezarritako ierarkia errespetatzen ez duena, eta abar luzea. Gainera, indarrean zegoen Hiri Hondakinak Kudeatzeko Bizkaiko II Plan Integrala (PIGRUB - Plan Integral de residuos urbanos de Bizkaia) 2016an epez gaindituta, 2020 urtera arte luzatu egin zuen BFAk.

Honezkero, datozen 12 urtetarako Bizkaiko hondakin kudeaketa politikak baldintzatu duen III Plana diseinatu eta onartu egingo da 2019-2020an zehar.

Honen aurrean, EHBilduk bai Gipuzkoan zein Lea Artibaiko mankomunitatean ezarritako sistema jasagarriak eta eredugarriak sustatu beharko lituzke.

Lea Artibaien organiko osoaren (begetala eta animalia, gordina eta sukaldatua. Bizkaian soilik begetala eta gordina bildu daitekeenean) bilketa egiten da EHBilduren bultzadaz, Mankomunitatea gehien eta hoberen birziklatzen duen Bizkaiko eskualdea bilakatuz.

Bukatzeko, badaudela eragile zein aliatuak gurekin batera bidea urratzen dabilzatenak, Bizkaian Zero Zabor Plataforma bezala, non sindikatu, alderdi politiko eta eragile sozialekin lankidetzan, bestelako hondakin politikak bultzatu nahi ditugun.

HELBURU OROKORRA

- Egungo hondakin kudeaketa eredia salatu eta gurea goraipatu.
- Organiko osoaren bilketaren bandera egin, Bizkaia osora eramateko proposatuz.
- Kudeaketa eskualde mailara eroan.
- Zabalgarbiren ilun guztiak salatu.
- Baliabide nahiko udalerrri/mankomunitateentzat.
- Ekonomia linealetik, ekonomia zirkularrerako transizioa ahalbidetu.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Fiskalitate berdea, hondakinen sorrera murrizteko eta organikoaren bilketa zein konposta sustatzeko.
- Agrokonposta eredia zabaldu herri txiki-ertainetara.
- Bilketa selektiboagoa egiteko baliabide nahiko udalerrientzako.
- Kudeaketa deszentralizatu, eskualde mailara eramanez.
- Organiko osoaren bilketa Bizkaia osora zabaldu
- Zabalgarbirekiko menpekotasuna murriztu eta beren kudeaketa gardentasunera eraman:
 - Zepen kudeaketan irregulartasunak salatu.
 - Dioxinen isuriketetan kontrola areagotu.
 - Hondakinen balorizazioa aztertu. Auditoria.
 - Energia berretzagarrak sortzeagatik Estatutik kobratzen dituen primak behatu.
- Bizkaiko ehun produktiboarekin ekonomia zirkularrerako lurraldeko estrategia garatu, I+D+I proiektuak bultzatu.

LURRALDE ANTOLAKETA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Lurralde antolaketa Bizkaiaren konfigurazioa erabakitzeko eskumena da: ekonomia jardueren kokapena, garraio azpiegituren garapena, biziguneen forma, inguru naturalaren mugak,... Nolabait esateko, herrialdearen bizitza eta etorkizuna marrazten ditu.

Diziplina konplexua izaki, beste hainbat jakintza arloekin erlazio zuzena du, besteak beste, arkitektura, lurraldearen antolakuntza, zuzenbidea, ingeniariak, ekologia, soziologia eta politikarekin.

Lurraldearen antolaketaren bitartez ez da soilik erabakitzen herri eta auzoetan eraikuntzak zein ezaugarri izango dituzten, herritarrongan eragin zuzena duten beste erabaki batzuk ere hartzen dira: zein eskualdetan/herritan indartu jarduera ekonomiko bat do beste, zein etxebizitza eredu jarri leku batean edo bestean, zein garapen eredu bultzatu azken finean.

Bizkaian garrantzia berezia du eskumen honek. Gaur egun Bizkaia polarizatu bat dugu marraztuta, gainerako herri eta eskualdeen kalterako: zerbitzuak eta biztanleak metropolian kontzentratzen dira masiboki, eta gainontzeko lurraldean eremu honen beharrianak asebetetzeko baliabideak

sortu dira (kanpoan dauden industriguneak, Zamudioko Parke Teknologikoa, garraio azpiegiturak, zaborteak,...).

Baina ba al dago Bizkaian lurralde oreka bilatzerik? Batetik, Metropoliak egun eskaintzen dituen baliabideak eta posibilitateak ordenatu egin behar dira, eta bestetik, eskualdeetan garapen ekonomiko, sozial eta ekologikoa bateratzeko bitartekoak jarri beharra dago.

HELBURU OROKORRAK

- Bizkaiko eskualdeen arteko oreka bilatu behar da (azpiegituretan, zerbitzuetan, garapen ekonomikoan,...).
- Politika sektorialak eta lurralde antolaketa politikak klima aldaketa eta biodeibertsitatearen kontserbazioa kontuan izan behar dute
- Lurralde antolaketa zehazterakoan hiritarren erabakitzeko ahalmena bermatu behar da, gaur egun parte hartze prozesuak kontsultiboak dira soilik.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Elikadura burujabetzara bideratzeko lurren erreserba eratu behar da
- Eskualdeen autonomia bultzatzeko lurraldea orekatzeko neurriak hartu behar dira, Metropoliaren dependentzia gutxitu beharra dago.
- Lurzoru urbanizatu gabea errespetatu, eta degradatua dagoen lurzorua ikerketa eta garapenerako, edota hiritarren zerbitzuetara bideratzeko biziberritu beharra dago (bereziki Babcock, Zorrozaurre, Lemoizko Zentral Nuklearra,...)
- Lurralde antolamendurako planetan hiritarren parte hartzea eta erabakitzeko eskubidea bultzatu, eta hauen indarraldia bukatu baino lehen berrikusteko tresnak ezarri behar dira.

ENERGIA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Bizkaiak duen menpekotasun energetikoa ia erabatekoa da, %90ekoa baino handiagoa. Euskal Herria herri burujabea izan nahi badu, energia burujabetzaren norabidean aurrerapausoak egitea ezinbestekoa da. Eredu ekonomikoarekin estuki lotuta dagoen energia eredu atzerakoia dugu, zahuketan eta etengabeko hazkundean oinarritzen dena.

Energia eredu honen kudeaketa egiten duten oligopolio eta multinazionalak beraien interes ekonomikoei begirako kudeaketa eredu inposatu dute azken hamarkadetan, botere politikoa izan duten alderdien laguntzarekin beri ere.

Energiak gure sistema sozioekonomikoa mugitzen du. Gaur egungo sistema kapitalista baliabideen xahuketan oinarritzen da baliabide guzti horiek agortu arte. Urtez urte, ekoizpenak eta kontsumoak gora egin behar dute sistema honek, kapitalismoak, ondo funtzionatu dezan.

EHBilduk sistema burujabe eta jasangarrirako trantsizioa burutu nahi du. Erronka oso handia da eta pausuz pausu baina sendo egin behar da.

Erregai fosilen (merkeen) agorpena heldu denean, Euskal Herrian ere aurreranzko ihesbideari ekin diogu. Egoera hori eman da hemengo arduradunek erregai fosiletan oinarritzen den eredu zentralizatua sustatu dutelako.

Nahikoa da azken 10 urteko konparaketa bat egitea: EAEn, 2004-2014 urte tartean, energiaren azken kontsumoan % 38,3 izatetik % 41,3 izatera pasatu da, gasa % 25,6 izatetik % 26,6 izatera eta berriztagarriak % 3,6 izatetik % 5,2 izatera. Beraz, ustez berriztagarrietan oinarritzen den eredu batera trantsizio egin beharraren irudia ematen bada ere, instituzio nagusien datuek oso argi uzten dute ez dagoela energia eredu benetako trantsiziorik emateko asmorik, iraganeko inertziak bultzatutako aurreranzko ihesbidea baino ez.

HELBURU OROKORRA

Energia kontsumoa %20 murriztu eta energia kontsumo gordinaren %20a berriztagarria izatea. Era berean, energia ondare publikoa eta estrategikoa bezala kudeatzen hasi behar gara. Horretarako, irizpide ekonomiko pribatuen menpean erregai fosiletan oinarritzen den gaur egungo eredu eraldatzen hasi behar dugu. Erabakiak, kostuak eta onurak gizarteratuz eta energia berriztagarrietan oinarritzen den eredu banandu berri bat ezarriz.

Energia berriztagarrien aldeko neurriak abian jarri behar dira. Ingurumen ikuspegitik zein bideragarritasun ekonomiko eta sozialetik, energia berriztagarrietan oinarritutako sistema energetikoa eraiki behar dugu, beti ere aipaturiko kontsumoaren murrizketa burutuz.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Askotariko neurriak sustatzea energia-eredu alternatibo eta subirano baterantz joateko

- Fracking tekniken erabilera baztertzea.
- Energia deszentralizatuaren produkzioz, energia-kooperatiben sorrera eta mantentzea, eta udalerriko eta eskualdeko ekimenak sustatuta, besteak beste.
- Osagai energetikoaren balorazioa egitea aztarna ekologikoan.
- Energia-faktorea (murrizketa, efizientzia eta iturri berriztagarrietatik eratorritakoa) hirigintzan eta lurralde-antolamenduan, dagozkion baldintzak ezarrita.

Energia-kontsumoa murrizteko neurriak indartzea

- Energia-efizientziako programak ezartzea eta kontsumo energetikoa murrizteko I+G+Bko programak diruz laguntzea.
- Energia-kontsumoa murriztea garraioan: erosketa eta salmenten sustapena zirkuitu laburretan, oinezko edo bizikleta bidezko eguneroko garraioa errazten duen lurralde-antolamendua...
- Energia-kudeaketa jasangarria egitea foru-erakundeetan: eraikin publiko guztien, argiteria publikoaren eta abarren plangintza energetiko arrazionala.
- Kontsumoa murrizteko teknologia berrien erabilera sustatzea, esparru publikoan zein pribatuarekin lankidetzan.
- Energiaren aurrezpena, energia-efizientiaren lorpena eta energia berriztagarrien erabilera sustatzen duen politika fiskala garatzea, praktika horiek sektore guztietan babestuz.

Energia berriztagarriak sendotzea

- Industria-sektorerako energia garbiko iturri alternatiboen erabilerarako programak sustatzea. Horien artean, potentzialidade handia izan dezake energia geotermikoak.
- Foru arloko politika integralak diseinatu eta martxan jartzea garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera errazteko.

AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Azken urteetan nagusitu den etengabeko azpiegiturak eraikitzeke politikekin amaitu beharra dago, inbertsio politika basati honek administrazioak itozera eraman baikaitu. Bizkaian lehenetsi behar dira errentagarritasun soziala areagotuko eta garraio publikoa bultzatuko dituzten azpiegiturak.

Beharrezkoa da inbertsio politika gizarte-errentagarritasunaren printzipioan oinarritzea ingurumena eta iraunkortasun parametroak ahaztu barik. Baina Bizkaiko Foru Aldundiak apostu irmoa egin du ibilgailu pribatuaren erabilera sustatuko luketen azpiegituren alde: Supersurraren luzapena eta Lamiakoko ur-azpiko tunela. Guk zalantzan jartzen ditugu lehentasun horiek. Are gehiago, EH Bilduk argi du Bilboko metropoliaren hegoaldeko saihebidetaren luzapena inondik inora ez dela lehentasun bat. Herrialde honetan, onura soziala izango luketen beste azpiegitura batzuk daude.

Inbertsiorik egokiena ibilgailuen erabilera murrizteko, garraio publikoa indartzea da, eta Aldundiak kontrako norabidea hartu du. EH Bilduk garraio publikoa bultzatzeko neurriak bultzatuko ditu, ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko asmoz.

Metroaren hedapena izan daiteke neurri egoki bat, baina EH Bilduren ustez, hori gauzatzeko ondo aztertu behar dira alternatibarik egokienak, irizpide sozialak, teknikoak, ekonomikoak eta ingurumenekoak kontuan hartuta.

Baita, ez ditugu bidegorriak ahaztu nahi. EH Bilduk beti eskatu du inbertsioen portzentaia esanguratsu batean handitzea, herri eta eskualdeen arteko sareak sortuz, eta bizikleten alokairu publikoaren sareak indartuz. Beharrezkoa da behingoz, apostu irmoa egitea bidegorrien sarea bultzatzeko.

Bestalde, ezinbestekoa da Bizkaibuseko zerbitzua hobetzea. 2023 urtean bukatzen da enpresa desberdinei esleitutako emakida, beraz, momentuz ez da posible publikazioarako bideak irekitzea. Ondorioz, azken urteetan sortutako arazoak saihesteko, ezinbestekoa da enpresek ematen duten zerbitzuari jarraipen estua egitea. Erabiltzaileek jasotzen duten zerbitzuaren kalitatea bermatzeaz gain, diru publikoa modu egokian erabiltzen dutela ere bermatu beharra dago.

Badaude beste alternatiba batzuk ere, adibidez txartel bakarraren ezarpena, bi ardatzetan oinarrituko dena: erabiltzaileen errenta eta erabilpen maiztasuna. Urteak daramatzagu aldarrikapen honekin baina ia urratsik ez dira eman hori gauzatzeko. Aitzakiak besterik ez ditugu entzun, borondate politikorik ez dagoela agerian geratuz.

HELBURU OROKORRA

Egungo ereduaren mugak begi bistakoak dira eta ekonomikoki, sozialki eta ingurumenarekiko jasangarria izango den eredu bat aldarrikatzen dugu: lurralde antolaketa arduratsu baten ondoriozko garraio plan integral iraunkor bat diseinatu behar dugu, garraio publikoari lehentasun osoa emanez, egun ditugun azpiegiturak kontuan izanez eta erabilera areagotzeko neurriak hartuz.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Irisgarritasuna eta mugikortasun iraunkorra dira gure mugikortasun politikaren ardatzak.

Norabide horretan, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta udalak lankidetzan jarriko ditugu, herritar orok irisgarritasuna bermatua izan dezan eta administrazio publikoek eskaintzen dituzten zerbitzu guztietara sarbidea izan dezaten. Arreta berezia izanda aniztasun funtzionaleko erabiltzaileekin, irisgarritasun normalizatu bat bermatzeko.

Horretarako ezinbestekoa da Euskadiko Garraio Agintaritza eta Bizkaiko Mugikortasun Agintaritza indartzea eta eurek eraginkortasuna bultzatzea. Eta baita hiru lurraldeetako agintaritza desberdinen homogeneizazioa.

Intermodalitatea indartzen joan behar gara gure lurraldean, horretarako zehaztu behar dira intermodalitate hori erraztuko luketen guneak. Aldirietako aparkaleku sare batekin helburu hori lortzeko urratsak emango genituzke, ibilgailu pribatuaren erabilera murriztuz.

Eraginkortasun hori modu esanguratsuan areagotuko litzateke, Bizkaian Txartel Bakarra ezarriko balitz. Legegintzaldi honetan, lehentasunezkoa izango da helburu hori lortzea. Parametro hauetan ezarriko genuke:

- Txartel bat izatea denok, edozein delarik ere herrialdea, garraiobidea edo operadorea.
- Edozein delarik ere erabiltzen den garraio bidea, edozein dela ere zerbitzua ematen duen operadorea, ibilbide berak kostu bera izan dezala.
- Tarifa bateratua ezartzea, garraio bide ezberdinetan tarifa bera izan dadin; eta are gehiago, erabiltzaileentzako deskontu politika bat eta zehatza aplikatzea, bi ardatzetan oinarrituko dena: erabiltzaileen errenta eta erabilpen maiztasuna; alegia, gutxien dutenek eskuragarri izan dezaten garraioa eta garraio publikoa asko erabiltzen dutenak sarituz.

Bizikleta bidezko mugikortasuna planifikatu eta garatuko dugu, aisialditik haratago, egunerokotasunerako garraio sistema modura ulertuz. Gehien bat herri zein eskualdeen barruan, herri eta eskualde arteko bizikleta bideen sarea garatuz. Horretarako beharrezkoa da: azpiegitura egoki eta bidegorriak garatzearekin batera, errepideak autoekin konpartitzeko ereduak bultzatzea, garraio publikoetan bizikleta eramateko baliabideak ipintzea, azpiegitura nagusietan bizikleta aparkalekuak egitea, eraikin publiko eta komertzial guztietan bizikletentzako aparkaleku egokiak egiteko beharra arautzea.

- Bizikleta-bideen Lurralde Arloko Plana (PTS) lehen bait lehen egin beharra dago, eragindako erakunde guztiekin batera. Plan horrek, aurrekontu garrantzitsua izango du, bere garapena bermatzeko. Plan horren baitan, 25 milioi euro inbertituko ditugu eskualde ezberdinen arteko bidegorri sarea zabaltzeko, besteak beste:

- Ezkerraldeko bidegorria
- Bilbo-Getxo bidegorria
- Nerbioi Haraneko parke linealaren bidegorria
- Lezamako trenbide zaharreko bidegorria
- Durangaldeko bidegorria
- Ibaizabal ertzeko superbidegorria
- Udalentzako diru-laguntza lerro bat irekiko dugu Bidegorrien Udal Sarea burutzea errazteko.

Garraio publikoa bultzatuko dugu. Garraio publikoan orokorrean eta autobusetan bereziki, kudeaketa publikoa bultzatuko dugu, zerbitzuaren kalitatea zein maiztasuna hobetuz eta ibilgailu elektrikoak lehenetsiz.

Eskualdeen arteko konexioa eta kohesioa lortzeko Bizkaibusek aurrekontu igoera izango du.

Trenbide azpiegitura guztien azterketa sakona egitea ezinbestekoa da, egungo lineak indartzeko eta lurralde honek beharrezko dituen azpiegiturak diseinatu eta gauzatzeko.

- Eguno trenbide sarearen eskumena eskatzen jarraituko dugu. Egun Bizkaian ditugun linea desberdinetan hobekuntzak ezartzeko. Horien artean, Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu trenbide-pasaguneak ezabatzea edo behintzat segurtasuna hobetzea, eta tren zerbitzuaren maiztasunak handitzeko hobekuntzak eginez.
- Bizkairako aurreikusitako trenbide proiektuak (metroaren linea berriak, aireportukoa, tranbiak, eta abar...) berraztertuko ditugu eta gizarte-errentagarritasunaren printzipioan oinarrituko ditugu proiektu berriak. L3 linearen luzapena izango litzateke horietako bat. Sarratuko intermodaletik Usansoloko ospitaleraino iritsiko litzateke, eta Euskotreneko zerbitzuarekin lotura zuzena izango lukeena, Aperribai eta Bengoetxen geltokiak izango litzatekeena ere. Beste bat, garrantzitsua izango litzateke ere Rekaldera iritsiko litzatekeen metro linearen informazio-azterlana lehen bait lehen bukatzea, alternatibarik egokiena adosteko prozesu parte-hartzaile baten bidez. Eta ondoren, beharrezko izapide administratiboekin jarraitzeko eta baliabide ekonomikoak bideratzeko.

Errepideen eraikuntza basatiak finantzaketa arazo larri batera eraman gaitu: irtenbide integral bat behar dugu finantzaketa iturriak finkatzeko, eta horretarako EAEko erakunde guztien arteko elkarlanean proposamen bateratua diseinatzea planteatzen dugu, lurralde arteko desplazamenduetan eta lurralde barruan oreka eta berdintasun printzipioak aplikatuz egun dagoen diskriminazioarekin bukatzeko.

Sistema orekatu eta justuago bat lortzeak garraio publiko eraginkor baten aldeko eredia garatzeko behar den oreka finantzarioa lortzeko bidea emango digu. Bidesarien politika berriak gaur egun Bizkaiko ekialdean bizi diren herritarrek pairatzen duten diskriminazioa gainditzeko urratsak emango ditu.

Bestalde, AP-68ren eskumena izatean, AP-8, HSM eta Artxandako tuneletan bezala, gastu-muga ezarri beharko da.

Hala ere, Bizkaian badaude azpiegitura berri batzuen beharra errentagarritasun sozialean oinarriturik. Adibide esanguratsuen **Errekaldeko zubiaren eraisketaren** beharra da.

Baina beste batzuk badaude ere, horien artean, La Avanzadako estaldura, Bermeoko errepidezko irisgarritasuna hobetzea... Hala ere, edozein azpiegitura gauzatu baino lehen ondo aztertu behar dira egon daitezken ingurumeneko kalteak.

Garatu beharko den beste gai bat da, edozein azpiegitura eraiki baino lehen, gizartearen parte-hartzea bermatzeko neurriak ezarri behar direla, erabakien gardentasuna bermatuz.

Gaitasun handiko errepideek gure lurraldean eragin dituen ingurumenean zein osasunean kalteak leuntzeko hainbat neurri eramango ditugu aurrera, hala nola, fauna bideak eraikitzeak eta soinu plakak zein horma begetalak jartzea.

Aireportuen gaineko kudeaketa mahai gainean jarri eta herri ikuspegi batetik planteamendu zehatzak egingo ditugu, eta horretarako eskumena aldarrikatuko dugu. aireportu sarearen antolaketa integrala planifikatuz eta aireportuen arteko osagarritasuna bilatuz.

- Antolaketa integral bat planifikatu bitartean, Loiuko aireportuaren zabalkundea egiteak ez du zentzurik.

Portuen eta itsas garraioaren kudeaketa integralerako urratsak ematea lehentasunezkoa da, eta horretarako eskumena aldarrikatuko dugu.

ETORKIZUNEKO HERRIA

JATORRI ANIZTASUNA ETA MIGRAZIOAK

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Berdintasuna, herritar guztiak eskubide eta betebeharrei dagokienez parekatzen dituen printzipioa dela kontuan hartuta, gizarte-aurkakotasunen desagerraraztea bultzatzen dugu, sortutako aberastasuna birbanatzearen bidez gizarte osoaren ongizatea ziurtatu ahal izan dadin. Ildo horretan, erabat baztertzen dugu jaioterria kategorizazio irizpide gisa erabiltzea, herri honetan bizi garen guztiok euskal herritarrak garelakoan baikaude, jaio garen lekua, sexua, sexu-orientazioa, sinesbidea, etnia eta abar edozein izanik ere.

Aniztasun kulturalaren kudeaketa, eredu demokratikoen arabera bideratu behar da, multikulturala den gure jendartea osatzen duten pertsona eta errealitate anitzen elkarbizitza bermatuko duen moduan.

Eskubide guztiak pertsona guztientzat bermatuko duen harrera herria izan nahi dugu, jatorri aniztasunarekin eta kulturarekin erlazionatutako errealitate guztietan (pertsona migratzaileak, euskal jatorria duten pertsonak, jatorri-estatu desberdinetako pertsonak, herri ijito), kolektibo eta komunitate bakoitzeko izaera propioa kontuan hartuz.

Euskal Herriak ez ditu eskumen eta erreminta propioak aniztasunaren eta migrazioaren kudeaketa burutzeko, horregatik gaurko egunean ezin erabaki ditzakegu garatu nahi ditugun politika propioak. Ondorioz, Euskal Herrian bizi den oro euskal herritarra eta beraz eskubide guztien jabe izan behar dela argi badugu ere, estatuak mugak jartzen dizkigu horren garapenerako. Bide honetatik, herritar guztiei zuzendutako gure eredu propioa daukagu, parte hartzailea, zehar lerrokoa eta inklusiboa, erreferentziatzat Euskal Herria hartzen duena eta hastapen moduan nazio politiko izaera dugula zein kulturalki gutxituak garela kontuan hartuko duena.

Berdintasunaren printzipioaren arabera, eskubide, betebeharrak eta aukera berdinak dagozkigu, eta administrazio publikoari dagokio hori bermatzea. Jakin badakigu, arrazoi ekonomiko, politiko, kultural eta sozialek eragindako migrazio-fluxuak direla eta, euskaldun asko eta asko barreiatu direla mundu osoan, eta, era berean, jatorri askotako pertsona eta talde ugari iritsi direla Euskal Herrira. Horren ondorioz, Euskal Herria askotarikoa da herritarren jatorriari dagokionez, eta arlo horretako politikei era integralean ekiteko beharrezkoak diren eskumenak eduki ez arren,

migrazioaren eta aniztasunaren eremuan paradigma aldatzea eta ikuspegi propio, zeharkako eta integral bat txertatzea proposatzen dugu.

Jatorri eta kultura aniztasunaren kudeaketa, beraz, gai konplexua da eta arduraz hartu beharrekoa. Hori horrela izanik, eta Europatik zein estatuetatik inposatu dizkiguten migrazio lege eta araudi eskubide urratzaileek bestelakorik badiote ere, EH Bildutik argi daukagu pertsona guztiok daukagula duintasunez bizitzeko eskubidea eta, edonon jaioak izanik ere, bizitza duin horren bila edonora joateko askatasun osoa. Hori dela eta, EH Bildurentzat, norberaren identitatea erabat errespetatuz, herri honetan bizitzea erabaki duen pertsona oro euskal herritarra da, edonon jaioa dela ere; eta euskal herritar guztioi bermatu behar zaizkigu eskubide, erantzukizun, betebeharrak eta aukera berberak, gure jatorria, sexua, sinesmena, etnia, identitatea, sorlekua edo jatorria edozein dela ere. Eta hori erakunde publikoen lana da.

HELBURU OROKORRA

Pertsona guztientzat eskubide guztiak, eta aukera berdintasuna aldarrikatzen ditu EH Bilduk. Eta aldarrari hori errealitate izan dadin behar besteko neurriak abian jartzeko konpromisoa hartua dugu. Horren bermerako, administrazio publikoak herritarrei erabat irekiak egon behar dira, bertatik kudeatuko diren baliabide eta zerbitzu publiko guztietara iristeko aukera erraztuz. Elkarbizitza da gakoa. Horretarako, elkar ezagutzea, elkar ulertzea eta elkar aitortzea ezinbestekoak dira. Elkarren ezagutza eta ulertzea ahalbidetuko duten dinamikak eta jarduerak beharrezkoak ditugu, elkar aitortzaren eta, ondorioz, elkarbizitzaren oinarri baitira. Hori dela eta, alor honen dimentsio anitzak aintzakotzat hartuz, administrazio publikoetan aurrera eramaten diren politika orotan zehar-lerro gisa lantzea ezinbestekoa da eta beharrezko dugu mota anitzetako harrera, elkar ezagutza eta bizikidetzaren planak diseinatu eta martxan jartzea, instituzio-arte elkarlanean oinarrituz.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Lurraldeko eragile sozial, politiko eta instituzionalen arteko lankidetzaren eta koordinazioarako gune misto bat sortzea, aniztasun- eta migrazio-alorreko politikei buruzko erabakiak hartzeko —eta lankidetzaren eta elkarlanerako eta elkarri laguntza, babesa eta aholku emateko— esparru baten antzera.
- Jendartean parte hartzeko programa diseinatu eta inplementatzea, jendartean eta politikan parte hartzeko dinamika bat hainbat mailatan garatuko duena kultura-aniztasunaren eta elkarbizitzaren inguruan, lurraldeko kultura aniztasunaren isla diren errealitate guztiak aintzat hartuz.
- Elkarbizitza sustatzeko programa propioak garatzea elkarrekiko ezagutzaren eta aitortzaren oinarrituta, jarrera maternalistari gabe eta xenofobiaren aurka borrokatuz, jendartea kohesionatzeko dinamikak eta topaketa-eremu komunitarioak sortzeko helburu nagusiarekin.

- Toki-administrazioaren politika eta zerbitzuak lurraldean bizi diren pertsona guztiei irekitzea, haien jatorria edo lege-egoera (gizarte-, hezkuntza-, osasun-, kultura-, enplegu-, ekonomia-zerbitzuak, etab.) kontuan hartu gabe. Administrazioaren zerbitzu eta baliabideak hainbat hizkuntzatan argitaratzea.
- Mota guztietako (harrera orokorra, hizkuntza-harrera, elkarbizitza, elkar ezagutzea, parte hartzea, etab.) plan edo programak zehazteko baliabideak eta koordinazioa aktibatzea, pertsona guztiek zerbitzu publikoak jasotzeko aukera izan dezaten beren jatorria edozein izanik ere, eta elkarbizitza kudeatzea, erakundeetatik zein eremu komunitario eta sozialetik.
- Inplikazio instituzionala, salaketa eginez eta lurraldeko herritarrak proaktiboki defendatuz, eskubide politiko eta zibilen urraketa larriak gertatzen direnean. Herritarren babesa bermatzea, migrazio-legeek eta araudiek urratutako eskubideak baliatzeko aukera izan dezaten.
- Euskararen irakaskuntzaren doakotasun unibertsala ziurtatu arte, egoera sozioekonomiko ahulenean dauden pertsonentzako laguntza-programak inplementatzea, euskararen irakaskuntzan txertatzeko benetako aukerak izan ditzaten.
- Beste jatorri batzuetako emakumeek emakume guztiak jomugan dituzten programa espezifikoetarako sarbide normalizatua dutela bermatzeko neurriak.
- Harrera-sare bat sortzea, diziplinarteko aholkularitza zerbitzu batez hornitua, asistentzialismo soiletik haratago zeharkako ikuspegi integral batetik jardungo duena: iristen diren, iragaitzakoak diren edo iritsi berri diren pertsona guztientzat, orientatu eta informatu beharreko gaiak bere osotasunean landuz.
- Jendartea sentsibilizatzeko kanpaina bat martxan jartzea, banakako edo taldeko jarrera arrazista edo xenofoboak desagerrarazteko, zurrumurruek aurkako kanpainak barne.

GAZTERIA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Euskal gazteria jendartean kokatzen den kolektibo espezifikoa da eta, euskal jendartea bezala, kolektibo hau ere anitza eta zabala da. Kolektibo batez ari gara, ez garelako arlo edo eremu zehatzean kokatzen den gazteriaz ari.

Eremuz eremu arazo zehatzak dituen kolektiboa izateaz gain, Euskal Herriaren bizitza politiko, sozial eta ekonomikoaren garapenak bete-betean eragiten dien sektorea dira. Beraz, ez dira “hor” dauden gazte bat edo bi, arazo bat edo bi dituztenak: gazteok zapalkuntza integrala jasaten dute, aurpegi eta egoera ezberdinekin mozorrotua, eta horregatik, honen aurrean irtenbide integralak behar dira.

Beraz, gazteria zeharkako eran landu beharreko esparrua da, aldaketa politiko eta sozialaren bidean motorra izango den gazteriaren etorkizun duina gaurdanik eraiki eta bermatzeko.

Zentzu horretan, EH Bildutik apustu garbia egiten dugu: Bizkaiko gazteen oraina eta geroa bermatuko dituzten politikak proposatu eta egikaritu behar dira, arlo guztietan, iraunkorki eta gazteen nahi eta beharren arabera.

Gazteak zokoratzen dituen herriak nekez izango du etorkizun oparorik. Hori dela eta, gazteen bizitzan eragiten duten aspektu denetan gure hitza entzun eta kontuan hartzen dela bermatu behar dugu. Zentzu horretan, bizitza sozial, politiko eta kulturalean parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren oinarrizko baliabide materialak bermatze aldera lan egingo du EH Bilduk. Gazte burujabeak behar ditu herri honek, ondorioz, denon beharrizanak asebetetzeko eskaintza zabal eta integralak egin zein martxan jartzea izango da gure helburua:

EH Bilduk gazteen bizi proiektuak (lurralde/herrian) garatu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak bermatze aldera (enplegua, etxebizitza, zerbitzuak, mugikortasuna...) lan egiteko konpromisoa hartzen du.

Gazteok modu berezitan pairatzen duten sistemak eragindako desoreka sozial eta ekonomikoa, prekarietatea errealitate alda ezina sinestarazi dielarik. Horrek, erantzun berezitu eta zehatzak exijitzen ditu, arlo guztiak zeharkatuko dituen neurri ildoak proposatu eta martxan jartzea beharrezkoa izanik.

Bizitza politiko, sozial zein kulturalean gazteen parte hartzea ezinbestekoa da, haien eskubideak bermatu eta jendartearen transformazioa bultzatzeko beharrezkoa den heinean.

EH Bilduk beraz, Bizkaiko gazteen beharrak kontuan hartuz, eremu guztietan haien egoeraren jabedun izan, eta horren aurrean erabaki sendo eta ausartak hartzeko konpromisoa hartzen du. Gazteen arazoak jendarte osoaren arazo bilakatzeko lan egin behar dugu, "gazte betaurrekoak" jarritz, herri honen geroa marraztuko duten kide guztiongan. EH Bildu osatzen dugunok emango diren aurrerapausoetan, planteatuko diren aldaketetan, eta aplikatuko diren neurri berri guztietan gazteen beharrizanak kontuan hartzeko konpromisoa hartu beharko dugu: egoera irauliz, gazteria periferiatik erdigunera ekarriz.

HELBURU OROKORRA

Gazteek burujabe izan nahi dute zentzu guztietan. Haien bizitza zein gure herriaren etorkizunaren gainean erabaki nahi dute. Gazteek, Euskal Herri askea eraiki nahi dute, aldaketa horren motor bilakatu. Horregatik, proposatzen ditugun aldaketa guztiak, helburu orokor horren aldeko bidean egindakoak dira.

Ezinezkoa izango da gazteen bizitzak sakonki hobetzea, egungo eredu kapitalista heteropatriarkala errotik aldatzen ez badugu. Merkatuen eta kapitalaren mesedetara eraikitako sistema osoa deuseztatu, eta herritarron, gazteen, mesedeetara begira eraturako sistema propioa behar dugu. Honetarako, ezinbestekoa da gaurdanik gure bizi eredu eta filosofian aldaketak ematen hastea, elkartasuna, aberastasuna eta lanaren banaketa, eta pertsonen arteko aukera berdintasuna izanik gure oinarrizko baloreak. Horrekin batera, EH Bilduk martxan jarriko dituen politika ezberdin guztietan, gazte ikuspegia barneratzea oinarrizkoa izango da.

Gure eskaintza planteatutako oinarrien baitakoa da, baloreen iraulketa bultzatzeko asmoz, gazteen bizitzak hobetzeko helburuarekin:

- Gazteen bizi-baldintza objektiboak hobetzea
- Gazteen artean ahalduntze-prozesuak aktibatzea
- Jarduera instituzionala gazteekiko lankidetzara egokitzea
- Gizarte parekide eta anitzaren alde
- Kultura sortzaile eta ekintzailea

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Gazteen errealitate eta premietara egokitzeko baldintzak eta baliabideak jarriko dira. Zeharlerrotasunez aritzea etxebizitza, oinarrizko errenta, laguntzak, eta bestelako gaitan.
- Gazteentzako kalitateko enplegu duina bermatuko da. Gazteen sarbidea errazteko formulak aztertu eta martxan jarriko dira, kontuan izanik jende gaztearen izaerak funtzio publikoaren berrindartzea ekarriko duela.
- Etxebizitza eskubide subjektibo bat denez, 18 urtetik gorako edozein pertsonak babesturiko alokairuko etxebizitza bat eskatzeko aukera izango du, horietara heltzeko erraztasunak emanez.
- Gazteen premietara egokitutako garraio publikoa bultzatzea, adinaren eta diru-sarreraren arabera (txartel bakarra kontzeptuan oinarrituz).
- Gazteen auto-kudeaketarako baliabide material eta ekonomikoak ematea, gazteek proiektuak modu autonomoan garatzeko aukera emanez.
- Parekidetasuna bilatze aldera, internazionalismoa, kultura ezberdinen aniztasunaren aberastasunean, elkartasunean eta parekidetasunean oinarrituko duen eredu bat eraikiko dugu. Zentzu horretan, sentsibilizazio kanpainak burutuko ditugu, bereziki, lan munduratzean sarbidean, promozionatzerakoan, formazioan, soldatan... aukera berdintasuna bermatuz.
- Parte-hartze prozesua dinamikoa bezala ulertzen dugunez, herri mailatik abiatuko den prozesu anitza martxan jarriko da eragileei zein norbanakoei irekia egongo dena. Gazteekin harremantzako kanal eta bideak moldatu eta egokituko dira.

HIZKUNTZA POLITIKA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Euskal gizarteak izugarritzko ondarea du: Euskara. Izan ere, Euskara euskaldunok erabiltzen dugun hizkuntza da, beste ezer baino lehen; hau da, euskaldun herriaren eguneroko hizkuntza bizia, barne-bizitzarako, etxe-familiarako, lagunarteko, lanerako, atseginerako, kulturarako eta gizarteko elkarbizitza osorako, besteak beste.

Bizkaia lurralde euskalduna da: biztanleen %58tik gora euskaldunak edo ia-euskaldun dira. Gainera, 2 eta 30 urte bitarteko gazteen belaunaldia ia-ia osorik da euskalduna. Baina oraindik asko dira euskalduntzeko eskubidea izanik ere, erdaldun elebakarrak direnak. Herritar horiek euren aukera-eskubidea murriztuta dute, eta horren bitartez gainontzeko euskaldunok ere bai, elebakarrekin espainiera erabiltzera bultzatzen gaituzte eta.

Argi dago gure hizkuntzak azken hamarkadetan egin dituen aurrerapenak erakusgarriak direla mundu mailan. Baina alarma gorria piztu da. Goranzko joera moteldu egin da eta, lehenengo aldiz datuak batzen direnetik, euskara gaitasunak atzera egin du.

Kezka handia dago euskararen erabileraz, euskararen bizitasuna eta honen ondorio litzatekeen bizi-iraupena. Horregaitik, hizkuntza bizia izaten jarrai dezan, ezinbestekoa da lan hori aurrerantzean ere betetzen jarraitzea. Egungo gizartean gaitasun hori indartzea dugu hizkuntz politikaren oinarritzko betebeharra.

Bizkaiko euskaldun gehienak gazteak dira, asko lan merkatuaren ate joka dabilzanak. EH Bilduk lanpostu publikoen hizkuntza eskakizunak berraztertu behar direla uste du, euskararen normalizazioari laguntzeko.

Urteetan egindako lanak jarraipena izan behar du, hizkuntza politika, politika progresiboa izan behar du. Guk nahi genuke euskararekin egitea gaztelerarekin egiten den gauza bera, euskara, lan, komunikazio eta zerbitzu hizkuntza normala izatea.

HELBURU OROKORRA

Gaur egun Euskara ikasteko diru-laguntzak egon arren, ez dira nahikoak eta guztiz desberdinak dira herritar batzuentzat eta besteentzat. Horrenbestez, herritar guztiok euskara jakiteko eskubidea duten heinean, euskararen ezagutza ziurtatzeko eta ikasteko doakotasuna bermatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu behar dira erakundeetatik.

Horretarako hizkuntza politika berria bultzatu nahi dugu. Euskarari bere lekua emateko eta euskaldunei beren eskubideak bermatzeko eta errespetatzeko.

Euskararen ezagutza hedatzen jarrai dadin funtsezkoa bada administrazioek babes ekonomikoa ematea, babes hori kontuz kudeatu behar da inoiz eragileen ekimenak estali gabe. Horrenbestez, administrazio Publikoa euskalduntzeko ere urrats eraginkorrak egin behar dira. Modu progresiboan urratsak egin behar dira lan-eskaintza publiko guztietan bi hizkuntza ofizialei trataera bera emateko.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Administrazioa euskaldundu

- Euskararen zehar-lerrotasuna bermatzeko, euskara saila gobernu egitura gorenean jarriko dugu.
- Euskararen lehentasuna eta prebentzioaren ikuspegia barneratzen dituen hizkuntza-araudia ezarriko dugu Aldundian.
- Aldundiak indarrean ezarriko dituzte administrazioa berreuskalduntzeko eta euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzeko hizkuntza-politikak.
- Beren jarduera dagoeneko euskara hutsez garatu dezaketen atalak “atal euskaldun” izendatuko ditugu.
- Erakundeen kontratazioetan hizkuntza-baldintzak sistematikoki ezarriko ditugu.
- Erakundeetan eta erakundeen artean euskara lan-hizkuntza izatea bultzatuko dugu.

Herritarren euskalduntzea

- Helduen euskalduntzean doakotasunerantz urratsak emango ditugu. Bestelako administrazioekin eta arloko eragileekin elkarlanean, diru laguntzen eraginkortasuna bilatuko dugu, arreta berezia ezarriz gizarte egoera zailenetan dauden herritarrengan.
- Administrazioak eskaini beharko luke B eta D ereduetako familia erdaldunetako ikasleentzat eskola orduetatik kanpo euskaraz trebatzeko tailerrak, klaseak, etab. Erraztasunak eskaini behar dira erakunde eta administrazioetatik.
- Bizkaian dauden euskararen arnagune funtzionalak sortzeko eta daudenei indartzeko, garatzeko eta babesteko laguntzeko diru partidak sortu eta bideratu.
- Eskola adinetan seme-alabak dituzten euskaldun gurasoen euskararen erabilpena sustatzeko estrategiak landuko ditugu: hizkuntzaren transmisioa, euskararekiko jarrera proaktiboak, etxeko hizkuntza- giroa, e.a.

Alor sozio-ekonomikoaren euskalduntzea

- Euskara ziurtagiriak, euskara planak eta beren zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresak sustatu eta hobetsiko ditugu.
- Enpresei beren zerbitzuak euskalduntzeko diru laguntzak eta baliabideak eskainiko dizkiegu.

Euskarazko hedabideak

- Euskarazko hedabideak, herrialde, eskualde eta tokian tokiko mailakoak bultzatuko ditugu Bizkaian eta Aldundiak lehentasunezko tratua emango dizkie eta euren jasagarritasun ekonomikoa eta egonkortasuna bermatzeko hitzarmenak bultzatuko ditugu.
- Hizkuntza irizpideak ezarriko ditugu diru-laguntzak eta publizitatea esleitzerakoan.

Familia transmisioa

- Familiak euskararen transmisioan duen garrantziaz jabetuta, berauen euskalduntzea errazteko estrategiak garatuko ditugu.
- Familiek elkarrekin parte hartzeko ekitaldi euskaldunak lehenetsiko dira.

Aisia eta kirola

- Aisialdia eta kirola euskalduntzea bultzatuko dugu, bereziki landuko da gazteen erabilera ez formaleko gaitasuna indartzeko.
- Gazteriari begira egingo den eskaintza euskaraz izatea bermatuko da.
- Diruz lagunduko diren elkarteek (taldeak, klubak...) bermatuko dute beren jardueretan euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuko dituztela.

BAKEDUN HERRIA

MEMORIA ETA BIKTIMAK

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Egia ezagutzea eskubide bat da, eta erreparazioa beharrezkoa, eta erakundeetatik neurriekin erantzun behar diegu giza eskubideen urraketen biktimek jasandako kalteei.

Ikusi dugu egia, justizia eta memoriaren printzipioen inguruan adostasun politiko eta sozial garrantzitsua lortu dela, urraketa berdinen biktimek izan direnei tratamendu berdina eman behar zaiela onartzen da, baina, tamalez, printzipio hori baldintzatu egiten da praktikan, diskriminaziorik gabeko aitortza eta erreparazioa oztopatzen duten faktoreak sartuz.

Aitortza eta erreparazioa arbitrarioki lotzen zaizkio agente urratzaileari, eta modu horretan, ETaren biktimei Estatuaren biktimei baino eskubide gehiago ematen zaizkie. Frankismoaren biktimek ere ez dute behar duten errekonozimendua eta erreparazioa jaso Bizkaiko Aldunditik. Uste dugu bere eskubideen urraketa alegatu duen edozeinek kanal instituzional bat izan behar duela egia eta justiziara iristeko diskriminaziorik gabe.

HELBURU OROKORRA

Memoriari buruzko erabaki instituzionalek ikuspegi orokor eta globala izango duen plan baten ondorioa izan behar dute.

Bizkaian Egiaren Batzorde bat sortzea helburua izan behar da, edozein garaitan edo Bizkaiko edozein herritan arrazoi politikoengatik giza eskubideen urraketa bat jasan duela salatzen duen pertsona ororen errealitateari aurre egiteko, genero-ikuspegia sartzeko ezinbestekoa izanik; emakumeek emakume izateagatik sufritu dugu espezifikoki, eta horregatik gure eskubideak espezifikoki kontuan izan eta babestu behar dira.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Egiaren batzordea sustatu, ikerketa-batzordeak aktibatzea elkarte adituekin batera, egiaren mapak eraikitzeko.
- Gure lurraldeko biktimen beharrianak aztertzea, erreparaziorako beharrian horietarako laguntzak egokitu edo osatzeko.
- Memoria historikoaren foru arau bat sustatzea, izaera betearazlea eman diezaion esparru horretan garatu behar diren politikak eta ekimenak aktibatzeko: frankismoaren arrastoak eta sinbologia ezabatzea, hobietan edo hobi komunetan –Erorien aranean kasu- dauden euskaldunak berreskuratzea, identifikatzea, merezi duten ehorzketa duina gauzatu, memoria inizatibak sustatu, justizia izan dezaten kereiak eta salaketak sustatu...
- Kargu instituzionalekin eta herritarrekin batera lan egitea elkarbizitzaren aldeko mahaiak martxan jartzeko eta horietatik eratorriko diren ekintzak garatzeko.

PRESOAK

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Azken 50 urte hauetan gure herrian bizi izan duen gatazka politiko indarkeriaren bidez azaleratu da, eta hainbat kasutan ondorio konponezinak izan dituela jakinda, oraindik ere jasaten diren ondorio batzuk erreparatu daitezke, denak ez baitira amaitu.

Gatazkaren garaiko ondorio gogorrek konpontzea ezinbestekoa dugu, garai berriak indar osoarekin zabaldu ahal izan daitezen.

Premiazkoa da herri honetan bakea eta elkarbizitza atzeratzen ari diren oztopo guztiak gainditzea, eta preso eta iheslarien egoera konpontzea oso garrantzitsua da.

Bizkaiko Aldunditik eta Batzar Nagusietatik bake, elkarbizitza eta adiskidetzarako politikak implementatzeko garaia da, zauriak behar bezala itxi daitezen saihesten ari diren alde bakarreko blokeoei aurre eginez. Preso eta iheslari politikorik gabeko Euskal Herri bat eraikitzeko garaia iritsi da.

Bizkaiko erakundeek badute zerikusi handia ere edozein pertsona preso bergizarteratzeko eta gizartean berriro era egoki batean kokatu dadin ibilbideak marrazteko.

HELBURU OROKORRA

Dispertsioa amaitzea, egungo egoerak presoek eta euren senitarteko eta adiskideei eragiten dieten sufrimendu gehigarria ezabatuz. Ikuspegi humanitario batetik, gaixorik dauden presoak eta 70 urtetik gorakoak eta zigorraren 2/3 bete dituztenak aske uztea. Salbuespen-legeria bertan behera utziz, presoak kaleratzeko prozesu transizional bat bultzatuko dugu.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Dispertsioa amaitzeko ekimenak egitea, presoek senideak eta egoera berezietan dauden presoak ikuspegi humanitarioarekin tratatuak izan daitezten sustatuko ditugu.
- Gaixorik dauden presoak gizatasun-arrazoiengatik espetxetik ateratzeko eskatzea, eta tratamendu egokia jaso ahal izan dezaten zerbitzuak eta azpiegiturak sustatuko ditugu.
- Salbuespen-neurriak eta presoek giza eskubideen urraketa bertan behera uzteko eskatzea.
- Emakume presoek tratatu duina jaso dezaten sustatzea (arreta mediko espezializatua, haurrekin dauden emakume azpiegitura egokiak eskaintzea, izan ditzaketen beharrian espezifikoei kasu egitea...).
- Preso ohia gizarteratzeko ekintzak bultzatzea eta bideak eskaintzea. Bizkaiko erakundeek presoak gizarteratzeko dedikatzen dituen bitarteko eta politikak berraztertuko dira, kartzela eskumenaren transferentziaren argitara, beste kartzela politika alternatibo eta duin bat diseinatzeko.
- Gure lurraldean hitzarmenak sinatzea Espetxeen Zuzendaritza Nagusiarekin, lan komunitarioak egitera zigortuta dauden pertsonen edota erregimen irekian edo hirugarren graduak dauden presoek eskaintzak egiteko.

ELKARBIZITZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Gure iragana ahaztu gabe, beharrezkoa da orainari politika global batetik aurre egitea, etorkizunari begira herritarren giza eskubideen eta askatasunen jardun-eremuan kudeaketa normalizatua lortzeko.

HELBURU OROKORRA

Honako hauek izango dira oinarri: pertsona guztien eskubideak errespetatzea, elkarbizitza demokratikoa, gatazka berrien sorburu eta ondorio diren arazoei buruzko elkarrizketa, desberdinen arteko adostasuna eta mediazio edo justizia konpontzailearen tresnak aplikatuko dira. Euskal jendartearen gehiengoak erabakitzen duena errespetatzea.

Ekimen hauen lorpenean ere Bizkaiko instituzioak inplikatu behar dira, ekimen zehatzak bultzatuz.

Askatasun politikoak, funtsezko eskubide zibilak, eskubide sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta hirugarren belaunaldikoak deitutakoak ere beharrezkoak izango dira, eta kontuan izan beharko dira zeharkako politika guztietan.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Espazio publikoaren erabilerari, askatasun-eskubideari eta joan-etorri askerako eskubideari lotutako araudia berrikustea, eta giza eskubideen eta askatasunen irizpideetara egokitzea.
- Mozal Legea gure lurraldearen bizimoduan izaten ari den eragina aztertzea, eta eragin hori ezabatzeko erabakiak hartzea.
- Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legearen aplikazioak kulturaren eskaintzan eta inizatiba sortzaileengan sortzen duen eragina ebaluatzea, eta eragin hori gaitzen duten neurriak hartzea.
- Bereziki kalteberak eta baztertuak izan diren sektore eta pertsonen aldeko neurriak bultzatzea, espazio publikoa kontrolik, berrikuspen prebentiborik eta bazterterik gabe erabili ahal izan dezaten.
- Elkarbizitza Planak garatzea aniztasuna oinarri izanik, dauden kolektiboekin lankidetzan.
- Erakundearen eta Bizkaian dauden kolektiboen arteko elkartruke eta lankidetzarako guneak sortzea.

HERRI DEMOKRATIKOA

GOBERNANTZA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Gardentasuna, parte-hartzea, kontuak ematea, gobernu irekia eta abar bezalako hitzak guztion ahotan daude. Ordezkaritza politikoan oinarrituriko sistema demokratikoa krisian dago eta gobernuak herritarrengana hurbiltzeko, herritarrengan konfiantza sortzeko, egiten duten politikari sinesgarritasuna emateko,... termino horiek, era batean zein bestean, erabili behar dituzte.

Baina, guztiok gauza bera ulertzen dugu gardentasunaz? Herritarren parte-hartzea, zertarako? Galdera honetarako erantzun ezberdinak daude. Edo gobernu irekia eta gardentasuna edo herritarren parte-hartzea gauza bera dira?

Hitz bereberari oso esanahi ezberdinak ematen zaizkie, gobernu osatzen duten indar politikoen arabera.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, "Gobernu Irekia" da bere apustua eta horren barruan kokatzen dira gardentasuna, parte-hartzea, kontuak ematea edo datu irekiak. Gardentasun Foru Araua dago eta kontuak emateko saio ezberdinak egin dira, baina parte-hartzearen eta datu irekien kasuan urrats gutxi eman dira. Halaber, kontzeptuen inguruko nahasmena agerikoa da: aurrekontu irekiak daudela diote excel-en eskuratzeko posiblea delako!

Zuzentasuna, erakunde-integritatea, etika publikoa dira gobernantza-ereduaren ezinbesteko ezaugarriak. Bizkaia ez du sortu erakundearen zuzentasun sistema. Bateriaezintasunei eta interes-gatazkei buruzko Foru Araua dago, baina bertan etika-printzipioak garatu gabe daude eta sortu den Berme Batzordea barne-organoa da, kanpoko aditurik gabekoa, ezinbestekoa dena kanpoko kontrola egiteko.

HELBURU OROKORRA

Bultzatu nahi dugun gobernantza-ereduak, hurbiltasunean, gardentasunean, zuzentasunean, herritarren parte-hartze aktiboan eta kontuak ematean oinarrituta egon behar du.

Hurbiltasun geografikoa eta herritarrek administrazio publikoarekin dituzten harremanak errazten dituen hurbiltasuna.

Gardentasuna eta datu irekiak eskaintzea ezinbestekoak dira parte-hartzea gauzatu ahal izateko.

Administrazio Publikoaren eta bertako kargu zein langile publikoen zuzentasunari, objektibotasunari, eraginkortasunari, gardentasunari edo inpartzialtasunari kalte egin diezaioketen jardunbide okerrak edo jokabide ezegokiak saihesteko neurriak ezarri beharko dira.

Herritarren partaidetza aktiboa, erabaki-eremuetan barne, sustatzea, gure gobernantza-ereduaren funtsezko elementua da. Erabakiak partekatu nahi ditugu herritarrekin.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Bizkaiko sektore publikoaren kudeaketa-eredu irekia eta hurbila garatzea.

- Bizkaiko sektore publikoaren berregituraketari buruzko eztabaida-prozesuak irekitzea, administrazioak irekiagoak eta sendoagoak, herritarren zerbitzurako eta parte-hartze sozialean oinarritutakoak izan daitezen.
- Bizkaiko Foru Aldundiko bulegoen deszentralizazioan sakontzea, Gertu eskualde guztietara zabalduz, zerbitzu publikoak hurbiltzeko eta erakundearekiko harremanak eta informazioa eskuratzeko bideak errazteko.
- Herritar guztiek ulertzeko moduko informazio erraza eskaintzea (gastu eta aurrekontu publikoak, diru-laguntzak, proiektu handiak eta abar), teknizismoak alde batera utziz, beharrezkoak diren bide guztiak erabiliz baztertuen dauden kolektiboetara iristeko. Era berean, prozesu administratiboan desburokratizazioa martxan jartzea, herritarrentzat ulergarriagoak eta eskuragarriagoak izan daitezen.
- Datu irekien eremua zabaltzea eta emandako informazioa formatu berrerabilgarrian eskaintzea.
- IKTei arreta berezia jarri eta administrazioa gerturatu eta erabil errazagoa egiteko mekanismoak jarriko ditugu, zurruntasunarekin eta burokratizazioarekin amaitze aldera.

Bizkaiko sektore publikoaren kudeaketa-eredu gardena eta kalitatekoa sustatzea

- Gardentasunari buruzko Foru Arauaren garapena berrikustea, eta hobetzeko eta modu egokian garatzeko plan artikulatuak eta zeharkakoak definitzea.
- Sektore Publiko osoko kontratazio-prozeduren gardentasunean sakonduko dugu eta egun indarrean dauden Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduran sartzeko klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei dagozkienak aztertu eta egokitu ditugu, kontrataturiko langileen gutxieneko soldata 1.200 €-koa izan dadin, lan-baldintza duinak bermatzeko, berdintasun-konpromisoak betetzen direla zirtatzeko, jardura ingurumena errespetatuz burutzen dela egiaztatze eta abar. Halaber gizarte klausula horiek zabalduko ditugu giza-eskubideen eremukoak sartuz.
- Bizkaiko Foru Aldundian eta diru publikoz baina kudeaketa pribatua eginez funtzionatzen duten merkataritza foru sozietate eta foru fundazioen sarea progresiboki ezabatzeko plana abian jarri, BFAk horiek zuzenean kudeatuz.

Sektore publikoaren zuzentasuna, kanpoko gainbegiratzea eta kontrola indartzea.

- Kargu publiko eta izendapen libreko kargu guztientzat jokabide-kodeak diseinatzea / martxan jartzea, honako hauek bermatzeko: soldatak egokitzea errealitate sozialarekin bat etorri, pribilegioak ezabatzea eta euren zereginak sortutako beharrezanekin soilik eta eskusiboki bat datozen konpentsazioak egokitzea; baita erabaki-hartze eta gastu publiko zorrotzak ere.
- Erakundearen zuzentasun sistema orokorra sortuko dugu Bizkaian eta horren jarraipena egiteko Bizkaiko Etika Batzordea sortuko dugu, bertan kanpoko adituen parte-hartze nagusia bermatuz.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren politiken ebaluazio sistemak sustatuko ditu eta, aldi behin, Foru Gobernuak egindako kudeaketaren berri emango du herritarren aurrean.
- Neurri hauek txertatzeko, indarrean dagoen Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Araua aldatzeko prozedura abiatuko dugu.

Aipatu dugun moduan, gure gobernanta-ereduaren funtsezko elementua den herritarrek politika publikoetan parte har dezaten sustatze atal berezi batean garatu dugu.

PARTE HARTZEA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Indarrean dagoen sistemak, jarduera-esparru guztietara heltzen den etengabeko krisia bizi du. Eliteen politika ereduak sorturiko krisialdiak, bai Euskal Herrian eta baita mundu zabalean bizi garen herritarrak kaltetzen ditu, boterea eta aberastasuna gutxi batzuen esku egoten jarraituko duela segurtatzeko, gehiengoaren ongizatea xahutuz, etorkizuna hipotekatuz eta bizitza zein lan baldintzak kaskartuz.

Sistemaren politika eredu hauek erabaki ahalmenik gabeko herritar otzanak eta menpekoak bultzatzen ditu, kontrolik eta gardentasunik gabeko inposaketa ekonomiko eta politikoan oinarritutako eredu ilunak ahalbideratzeko. Honi guztiari, nazio gisa dagokigun subjektu politikoaren ukapena erantsi behar zaio. Beste batzuk erabakitzen dute gure izenean.

Herritarren parte-hartzeaz hitz egiten du Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko partaidetza Mapa egina du. Mapa horretan nahasten dira gizarte partaidetzarako organo eta foro iraunkorrak (esate baterako, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia), erakundeen arteko koordinaziorako organoekin (esate baterako, Iruzuraren kontra Borrokatzeko Batzordea) edota barne-koordinaziorako organoekin (esate baterako, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Sailen arteko Batzordea). Edo gizarte partaidetzarako organoen artean kokatzen dute herritarren ordezkaritzarik ez duten organoak, esate baterako, Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseilua. Nahasmen interesatua, azken finean, partaidetzaz hitz egiten delako, baina ez herritarrek erabaki politikoetan parte-hartzeko aukerak zabaltzeaz.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan sozialki historia eta tradizio handia duen "auzolana" eta "komunitateak" ditugu. Sozialki oso barneratua dugu autoeraketaren bidez eta borondatez herrigintza egitea.

Mugimendu eta elkarte sare handi eta biziak ditugu. Gure benetako indarra, lanerako balore hauen baitan kokatzen da eta hori da hain zuzen EH Bilduk jaso zein sakondu beharrezko parte hartze kultura.

Herri proiektua osatzean herritarrak protagonista dituen proiektua nahitaezkoa da. Alegia, herritarrek erabaki egin behar dute, beren buruaren jabe izateko tresnak behar dituzte eta erabakien subjektu izan behar dute. Horretarako, parte hartzea ezinbesteko printzipioa, filosofia eta lanabesa da.

HELBURU OROKORRA

Parte hartzea eraldaketa lortzeko tresna gisa ulertzen dugu, gure demokrazia eredu propioa sortzeko tresna.

Herritarren partaidetza aktiboa, kalitatekoa, erabakigarria, benetakoa, eraikitzailea eta eraldatzailea lortu behar dugu. Berdintasunaren ikuspegitik, egiturari dagokionez diskriminazio egoeran dauden sektoreen hitzari lehentasuna emanaz.

Erabaki handi eta txikiei dagokionez herritarrak kalean nahiz erakundeetan ahalduntzeko garaia da. Praktikan jarri behar dira demokrazia zuzenerako guneak, lankidetzazko sozialerako sareak eta demokrazian sakontzeko esperientziak.

EH Bilduren parte hartze politika proposamena gaur egungo errealitateetik abiatuko da. Halaber, egingarria, bideragarria eta pragmatikoa izango da herritarrak boteretzea ardatz harturik.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Herritarrek politika publikoetan parte har dezaten sustatzea.

- Agente eta eragile sozio-ekonomiko desberdinekin erakundeen eta herritarren artean informazioa trukatzeko bideak, guneak eta esparruak adostea, baita herritarrek arlo publikoari lotutako erabaki-hartzean eta plan eta programa garrantzitsuen betearazpenaren jarraipenean parte hartzeko ere.
- Herritarren Parte-hartzerako Foru Zuzendaritza sortzea, herritarrek kudeaketa publikoan eta lurralde-proiektu estrategikoetan parte har dezaten eta erabakietan eragiteko aukera izan dezaten sustatzeko helburuarekin.
- Parte-hartzerako politiketan genero-ikuspegia txertatuko da emakumeen parte-hartze orekatua bermatzeko eta emakume anitzen ikuspegiak txertatu ahal izateko.
- Parte-hartzerako langile teknikoaren sare bat sortzea; langile horiek prestakuntza jasoko dute bai genero-ikuspegia txertatzeko bai pertsona guztien eta, bereziki, zailtasun handiagoak dituzten talde edo kolektiboen parte-hartzea errazteko (gazteak, adineko pertsonak, migratzaileak eta abar).
- Zuzeneko demokraziako esperientziak bultzatzea, adibidez herri-kontsultak eta berrespen edo errefrenduak, politika publikoei lotutako erabaki-hartzean ahalik eta pertsona gehienek parte hartzeko helburuarekin.

Herritarrei egindako kontsultak sustatzen jarraitzea, parte-hartze sozialerako esparru berri baterako funtsezko elementu gisa.

- Herritarren kontsultei buruzko ponentzia bat garatzea Batzar Nagusietan.
- Herritarrentzat garrantzitsuak diren politika publikoei eta proiektuei buruz herritarrei kontsultak egiteko baldintzak maila politikoan adostea, eta pertsona eta kolektibo guztien eta bereziki jendartean baztertuen daudenen parte-hartzerako berme guztiak daudela ziurtatzea.
- EH Bilduk enfasi berezia jarriko du herri kontsulta, eta oro har, prozesuen prozedura eta moldeak herriko eta herrialdeko eragile politiko eta sozialekin batera burutzean.
- Usansoloko desanexioaren prozesua, eragindako eragile eta erakundeekin martxan jarriko dugu, eta prozesua bultzatuko dugu. Prozeduran baitan, mugaketa ezarri, ikerketak burutu eta azkenik kontsulta baten bidez herriari galdetu ia desanexioa nahi duen.

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuak garatzea, gure ereduari jarraikiz.

- Herritarrei aurrekontuei buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.
- Diagnostiko bateratua egitea eta proposamenak lehenesteko irizpideak ezartzea herritarrekin batera, ondoren eztabaidatu ahal izateko.
- Bizkaiko aurrekontu parte-hartzaileen prozesua eskualdeetan oinarrituz egingo da, urtero modu parte-hartzailean erabakiko den foru-aurrekontuaren zatia zehaztuz.
- Aurrekontuen jarraipena era parte-hartzailean burutuko da, eskualdeetako bilerak eginez.

HERRI JUSTUA

ZERGA POLITIKA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Indarrean dagoen zerga sistema gero eta injustuagoa da eta jendartean dauden desberdintasunei aurre egin baino, kontrakoa eragiten du, gero eta arrakala handiagoak daude: aberatsak aberatsagoak dira eta pobreak, pobreagoak.

Datu bezala, 2011. urtean, Bizkaiko 342 pertsona aberatsenek (6,4 milioi euroko ondarea deklaritzen zutenak) 4.524 milioi euroko ondare gordina metatzen zuten. 2016. urtean, krisia pairatzen ari ginenean, 140 aberats gehiago zeuden, eta 2.337 milioi gehiago metatu zituzten!!!

Eta gainera, ezkutu fiskalaren erruz, 62M€ galtzen dira, Kopuru horren %90 ez dute ordaintzen 6.4M€ baino gehiago duten aberatsek, hau da, beraiei egiten die mesede ezkutu fiskalak.

Zerga-sistema justuago izateko zerga zuzenek (errenta eta aberastasunaren arabeko zergek) zeharkako zergek (BEZa, etab) baino pisu handiagoa izan behar dute, zeharkako zergek gehiago kolpatzen baitituzte gutxiago dutenak. Bizkaian, 2017 urtean zergen bidez bildutakoan, pisu handiago dute zeharkako zergek (bereziki BEZak), zuzeneko zergak baino (%46), zergak era injustuan biltzen direla adieraziz.

Eta zuzeneko zergak ez dira progresiboak, ezta ekitatiboak ere, lan-errentek oso pisu handia baitute. 2017 urteko zerga-bilketan, lan-errentengatik 2.465,6 milioi € bildu diren bitartean, kapital- eta ondare-errenten bidez, 160,65 milioi € besterik ez dira bildu, hau da, kapitalaren errentaren bidez lorturiko euro bakoitzeko, langileok 15 € jartzen ditugu. Eta Sozietateen Zergaren bidez, 435,2 milioi € bildu dira. Hau da, enpresek dituzten etekinengatik ordaindutako euro bakoitzeko, langileek 5,66 € ordaindu dituzte.

Sozietateen Zergari dagokionean, dagokiena ez ordaintzeko enpresa handiek eskura dituzten zulo edo dedukzioak kendu nahi ditugu. Izan ere, nahiz eta tipoa %28 izan, orain arte, enpresa handien tipo erreala askoz txikiagoa izan da. Eta %24 izanda, gauza bera gertatuko da. Gure helburu egiazko tipoa, egiten duten ekarpen erreala, ezarritako tipoetara ahalik eta gehien hurbiltzea nahi dugu. Gure helburua ez da gure ehun enpresarialari eta produktiborari kalte egitea, kontrakoa, bultzatu

nahi dugu. Ez dugu exijitzen gehiago ordaintzea, baizik eta dagokiena ordaintzea, gutako bakoitzak egiten dugun moduan.

EH Bilduk aurreko legegintzaldian Gipuzkoan ezarritako Aberastasun eta Fortuna Handien Gaineko Zergak goraipamen asko jaso ditu instituzio eta Europako herri askoan. Zerga honek herritarren %1ari baino ez dio eragingo, hau da, aberatsenei. Baina iaz EAJ, PSE eta PPK bertan behera utzi zuten zerga hau.

Adituek diotenez, EAEn bakarrik iruzurra 2.500 milioi euro baino gehiagoko da. Enpresa eta fortuna handiek eragiten dute, batez ere, iruzur hori, euskal ogasunek publiko egindako zerrendetan agerian geratu zen bezala. Iruzur horretako dirua berreskuratzeak ehunka milioiko ekarpena suposatuko luke altxortegi publikoarentzat.

Kasu gehienetan, politika fiskalek ez diete erantzun egokia eman herritarren oinarritzko premiei, ez, behintzat, modu proportzionatuan eta berehala, ez baitute bermatu aberastasuna arian-arian eta bidezko moduan birbanatuko denik diru-sarreraren arabera aurrekontu-politika baten bitartez.

HELBURU OROKORRA

EH Bilduk oso argi du zerga-sistemaren helburua aberastasuna birbanatzea dela, hau da, aberastasunaren arabera zergak ordaindu eta jasotzen dena politika publikoen bidez gizartearen beharrei erantzun, guztion ongizatea bermatzeko.

Illo horretatik, datozen lau urte hauetan, guk lortu nahi dugun politika fiskalaren oinarriak unibertsaltasuna, ekitatea, progresibitatea, berdintasuna, nahikotasuna eta gardentasuna izango dira, gizarteak sortu eta administrazioak kudeatzen dituen baliabideak biltzeko garaian.

Gure ustez, helburu horiek administrazio eskudunen eta pertsona fisiko edo juridikoen arteko harremanean eragin behar dute, baina ez harreman horretan bakarrik: berdintasun-printzipioari jarraikiz, euskal administrazio guztien arteko harremanean ere eragin behar dute.

Politika fiskalen ahalmena ez dago soilik ezarri nahi den ereduaren baldintzapean, politika horietako bakoitza zehazteko eta garatzeko gaitasunak ere baldintzatzen baitu; hortaz, gobernuaren eta erakunde guztien ekintzaren helburu nagusietako bat erabateko subiranotasun fiskala lortzea da, hemen har ditzagun zerga guzti-guztiei buruzko erabakiak.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Erreforma fiskala egiteko proposamen bat aurkeztea, berdintasunezko fiskalitate progresibo eta bidezkoago bat lortzeko.

- Sozietateen gaineko zerga aldatzea. Lehenengoz, egun dauden kenkariak murriztuz, egun ahalbideratzen den zerga-elusioa ekiditeko. Zerga-tasak berrikustea, hiru tarteko eskala progresibo bat ezarriz irabazien arabera: 200.000 eurorainoko irabazietarako % 24, 200.000 eurotik milioi batera arteko irabazietarako % 26, eta milioitik gorako etekineterako % 28, hurrenez hurren.
- Aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga bultzatzea, iruzurraren aurkako kontrol gisa eta sistemaren progresibitatea hobetzeko baliagarri izan dadin. Horretarako, ezinbestekoa da ezkutu fiskala desegitea, aberastasun eta fortuna handienak dauzkatena direlako haren onuradun bakarrak.
- PFEZa aldatzea, kapital errenten gaineko tasa lan errenten gainekora gerturatu. Halaber, kenkariak sortzen dituzten ezberdintasunek, progresibitatearen kontra jotzen dute eta birplanteatu behar ditugu. Horien artean, alokairuzko etxebizitzak bultzatzeko neurri egokiak hartu.
- Zerga-sistemari buruzko eztabaida publikoa jendartean egiteko oinarriak finkatzea; zehazki, ereduari, helburuari, baliabideei eta proposamenei buruzko eztabaida izango da, eremu erabakigarri baina ilun hori jendartera hurbiltzeko eta demokratizatzeke asmoz.
- Jendartean eztabaida bat irekitzea honako zerga-figura hauen inguruan: ekotasa turismoari eta goi-tentsioko lineari, azalera handiko merkataritza gune berrirako zerga, kanon bat instalazio pribatu edo publikoetan hondakinak bota eta errausteagatik, gas kutsatzaileak emititzeagatik, erabilera bakarreko plastikozko poltsak erabiltzeagatik, eta urbanizazio berriko jardunetarako lurzoru-erabilerak aldatzeagatik, besteak beste.
- Energia-auditoriek proposatutako neurriak ezartzen dituzten enpresei, mugikortasun jasangarriko planak abian jartzen dituztenei eta garraioak trenbidez egiten dituztenei pizgarri fiskalak berrezartzeko aukera aztertzea.
- Eremu guztietan erabateko subiranotasun fiskala eskatzea, eta bereziki eskumen arau-emailea BEZari eta zerga berezietan dagokienez, zeharkako zergek zuzeneko zergekiko duten pisua murriztea ahalbidetzeko.
- Tokiko zergei dagokienez, Aldundiak arautzen duen zerga-markoan eskatzen dugu:
 - Ondasun Higiezinaren Zergaren kasuan,, hobariak ezartzeko aukera ematea Udaleri, ondasun horren jabearen egoera sozioekonomikoa kontuan hartu ahal izateko.
 - Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren kasuan, salbuetsita dagoen urteko eragiketabolumena milioi batera jaistea.
 - Tokiko zerga guztietan, Udaleri aukera izan behar dute hobariak ezartzeko

Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko neurriak areagotzea

- Giza baliabide eta baliabide teknikoak areagotzea, informazio-gurutzaketa masiboak ugalduz, eta arauak emateko eta ikuskatzeko gaitasun handiago baterantz aurrera eginez nazioarteko eragiketa eta enpresa handiei dagokienez.
- Iruzur eta Saiheste Fiskalaren aurkako Euskal Behatokia sor dadila sustatzea.
- Iruzurtutako zergak berreskuratzeko neurriak aktibatzea.
- Zordunen zerrendan sartuko dira 250 mila € edo gehiagoko zorra dutenak, nahiz eta zatikatuta izan.

Zerga politikan genero ikuspegia txertatzeko tresnak garatzea

- Egungo zerga-sistemaren eragina aztertzea generoaren arabera eta dauden ezberdintasunen zergatian sakontzea, neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.
- Generoen arteko diskriminaziorik sortuko ez duen zerga-politikaren oinarriak zehaztea.

AURREKONTU POLITIKAK

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Aurrekontuek gobernuak eramaten dituzten politikak jasotzen dituzte. Alde batetik, diru-sarreraren kasuan, zerga-politiken arabekoak izango dira; eta bestetik, gastuen kasuan, norengana bideratzen dituzten politiko publikoak islatuko dituzte.

Beraz, aurrekontuak ez dira zenbaki hutsak, izaera politikoa dute. Eta ildo horretatik, aurrekontuak ez dira teknikariek egiten dituzten liburuxkak, baizik eta herritarren, eragileen eta politikarien artean eztabaidatu behar diren politikak gauzatzeko tresna.

Aurrekontuak ere ez dira neutroak, genero-ikuspegitik. Jendarte patriarkal honetan dagoen emakumeen eta gizonen arteko disparekotasuna islatuta egongo da aurrekontuetan.

Azken legegintzaldietan abian jarritako ekonomia- eta aurrekontu-politiken lehentasunak ez dira gauza izan zenbait arazo larri –pobrezia, jendarte-desberdintasuna, langabezia, jendarte-bazterkeria– konpontzeko eta susperraldi ekonomikoa bideratzeko; areago oraindik, arazo horien guztien etengabeko gorakada geldiarazten ere ez dute asmatu aurrekontu-politika horiek. Krisiaren aitzakiarekin ongizate, berdintasun eta bizitza duinaren kontrako neurriak habian jarri dituzte.

Gastu publikoa murriztu beharrekin obsesionatuta, aurrekontuek lehentasunak soilik kontuen orekatzean zentratuta, herritarron ongizateak politika publikoetan erdigunea galdu du; are gehiago, ongizatea bermatu behar duten politikan murrizketa sakonak egin izan dira.

Bizi dugun egiturazko krisiari aurre egiteko alternatiba sakon eta integralak dira beharrezkoak, gehiengoaren eskubide eta kalitatezko bizi duin baten defentsa oinarri beharko luketenak. Krisiari irtenbide gisa inposatu zaizkigun neurriak, aldiz, kapital handien interesak babestera zuzenduak izan dira, eta ez gizarte osoaren mesedean. Kontrara, neurri horiek, beste urraketa batzuen artean, langile belaunaldi askoren borrokaren bidez lortutako ongizate sistema hustu egin dute.

Ezinbestezkoa da egoerari buelta ematea, eta gobernu sendo eta bultzatzaile bat ezartzea, lidergo publikoa gauzatuko duena eta ibilbide luzeko proposamen ausart eta askeak egingo dituen, egungo premia handiei ez ezik, gure jendarteak epe ertainera eta luzera ezarritako erronkei heltzea ere ahalbidetuko dutenak, baita horretarako mekanismo egokiak ezartzea ere.

Aurrekontu politikaren helburu nagusia politika publikoak garatzeko baliabide ekonomikoak bermatzea da, besteak beste. Baliabideak bildu eta inbertitzen diren moduen arabera, aberastasuna birbanatzen da, bidezko ekonomia bultzatzen da eta azken finean, nahi dugun gizarte eredia garatzen dugu, arrakala sozialari aurre egiten dion gizartea.

Diru sarrera nahikoak bermatzeko, alde batetik, zerga-sistema justuago eta progresiboagoa behar dugu; eta, bestetik, jasotako dirua euskal erakundearen arteko banaketa egokiagoa behar dugu. Ekarpenean Legearen bidez, bildutako dirua banatzen da Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalen artean.

Azken ekarpen legea 2007an onartu zen Finantzen Euskal Kontseiluan, eta 2011n epe muga bazuen ere oraindik indarrean dago. Bitartean 2016an Toki Erakundearen legea onartu zen Legebiltzarrean, urte luzeetan haren beharra udal mailatik hainbatetan erreklamatu ondoren. Eta lege honek, EH Bilduk bultzatuta, eskatzen zuen erakunde maila ezberdinen eskumen propio eta finantzaketari buruzko txostena egitea Ekarpenean legea egiteko oinarri moduan. Berandu izan arren, txostena amaituta dago, baina ez dago Ekarpenean lege berriaren ezta zirriborrorik. Ez dago, Finantzen euskal kontseiluan ez dutelako adosten nahiz eta alderdi bereko ordezkariak egon. Eta premiazkoa da, horren menpe baitago udal finantziario berriari ekitea.

HELBURU OROKORRA

Pertsonengan oinarrituta eraiki nahi ditugu aurrekontuak, beren betebeharrak asetzeko eta ekonomi iraunkorraren katalizatzaile izan daitezzen. Horretarako, aurrekontu politikak bost ezaugarri nagusi izango ditu:

- **Parte-hartzaileak:** guztion artean beharrezkoak diren politikak diseinatzearen aldera ezinbestekoa baita herritarren parte-hartzea.
- **Genero-ikuspegia txertatua:** aurrekontuek gizon eta emakumeengan duten eragina kontuan hartuko duena eta politika publiko guztietan berdintasunaren aldeko apustua egingo dutenak.
- **Birbanatzaileak:** aurrekontuek balio behar dute zergen bidez jasotakoa, zerbitzu eta politiko publikoetan inbertitzeko, era horretan gizarte-egoera larriagoan daudenen beharrei erantzun ahal izateko.
- **Gardentasuna:** aurrekontuak ezin dira izan zenbaki-multzo ulergaitzak, era erraz eta ulergarrian aurkeztu behar dira guztiok parte ahal izateko. Eta aurrekontuen kudeaketa era gardenean gauzatu beharko da, herritarrei egiten dena berri emanez.
- **Nahikotasuna:** diru-sarrerak nahikoak izan behar dira bizkaitarrek dituzten premiei era egokian erantzun ahal izateko. Garrantzia berezia eman behar zaio udal finantziarioari. Udalek finantziario nahikoa izan behar dute herritarrei eman beharreko zerbitzuak eman ahal izateko.
- **Eraginkortasuna:** baliabide publikoen erabilpenari dagokionez

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Parte hartzeko aurrekontu inklusiboak

- Parte hartzeko mekanismoak gaitzea, non eskualde, auzo eta herritarrek, aurrekontu-proiektuak proposatzeaz gain, haien gaineko erabakiak hartzeko eta haiei lehentasuna emateko aukera izango duten.

Genero-ikuspegia txertatzea

- Aurrekontuen genero-azterketa sistematizatua, haiek onartu baino lehen haien genero-eragina aztertzeke.
- Aurrekontuen programa guztiek gizon eta emakumeen arteko berdintasun-helburuak zehaztu dituzte.
- Aurrekontuen exekuzioaren eragina, generoaren arabera aztertuko da eta mekanismo zuzentzaileak zehaztuko dira.

Aurrekontuak, errenta eta aberastasuna birbanatzeko tresna

- Aurrekontuen lege-proiektuak diseinatzea, pertsonen eskubideak oinarritzat hartuta eta eskubide sozialei, bidezko ekonomia suspertzeari eta kalitatezko enpleguari lehentasuna emanez eta zerbitzu publikoen kudeaketa zuzena lehenetsiz.

Aurrekontu-gardentasuna bermatzea

- Aurrekontuak era ulerterrezean zabaldu jendartean.
- Aurrekontuen definizioari buruzko informazio publikoko guneak gaitzea aurrekontuak egiteko eta betearazteko prozesu osoan zehar.
- Herritarrei aurrekontua betearazteko moduaren eta mailaren berri emateko guneak gaitzea.
- Kudeaketa desegoki edo ilunak detektatu, prebenitu eta kontrolatzeko tresnak garatu eta inplementatzea.

Nahikotasuna.

- Baliabide nahikoak lortzeko zerga-politikan ezinbesteko aldaketak egin beharko dira
- Udal finantziazioa nahikoa bermatu behar dute foru-aurrekontuek. Horretarako, egun dagoen finantziazio-sistema aldatu eta egokitu behar da udalen parte-hartzearekin.
- Ekarpen lege berri bat adostu behar da gure erkidegoko maila instituzional guztiek (Jaurlaritzak, Aldundiek eta Toki Erakundeek) finantzaketa egokia dutela bermatze aldera.

Aurrekontuak eraginkortasun-irizpideen bitartez kudeatzea

- Publikoaren kudeaketaren eraginkortasuna handitzeko behar diren mekanismoak aktibatzea, eskumenak gainjartzeko aukera eta horrek aurrekontuetan dauzkan ondorioak prebenituz.
- Administrazioaren arlo guztietan mekanismo zorrotzagoak sartzeari aurrekontu-baliabideen erabilera ebaluatzen.
- Administrazio publikoen kontratazio-prozedura guztietan klausula sozial bermatzaileak sartu eta kudeatzea.

FEMINISMOA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Oro har emakumeak subjektu autonomo gisa onartuak gara, eta eskubideen parekidetasunean aurrerapena eman da. Hala ere, azken urteotan eskubideetan izandako lorpen horietako dezente kolokan daude, krisi ekonomikoaren aitzakiaz baliatuz hainbat neurri murriztatzaile ezarri direlako.

Hauek, genero rola indartzeko eta gizon eta emakumeen arteko zapalkuntza eredu sakontzeko helburua dute. Besteak beste, bizimodu prekarizatu eta zaugarriak bultzatzen baitituzte. Egoerarik larrienean gaur arte zaugarrienak izan diren kolektiboak daude: emakume etorkinak, adinekoak, gazteak, etxeko langileak, baserritarrak, sexu langileak, lesbianak, presoak, transexualak, pentsiodunak, aniztasun funtziona dutenak, alargunak eta abar.

Lana soberan, enplegu duina faltan. Egia da emakumeek ordaindu gabeko lan erreproduktiboei eskaintzen diogun denbora murriztu egin dela. Honek, lan horiek zerbitzuen sektoreak bereganatzea ekarri du. Merkaturatze honek ordea ez du eragin lan hauen aitortzan. Aldiz, zaintzari loturiko zerbitzuak guztiz feminizatuta daude eta lan prekario da nagusi.

Urtetako borroka feminista eta sozialari esker, emakumeek berdintasun formalari erreparatuz gero eskubide ugari eskuratu dituzte, baina, eskubide guztien jabe izan gabe jarraitzen dute gaurko egunean.

Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunaren erronkak politika publiko guztiak busti behar ditu. Ildo horretan, Bizkaian, urrats txiki bat eman dugu Berdintasun Foru Araua onarpenarekin. Urratsa, Bizkaiko politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko beharrezkoa tresna delako. Baina txikia, oso txikia, egun Bizkaiko Aldundiak egiten duenari genero-ukitua besterik ematen ez diolako.

Egungo politikan pertsonen zaintza eta ongizatea lehentasuna ezartzeko aukera galdua izan zen Berdintasun Foru Arauaren eztabaida. EAJk eta PSEk ez zuten inolaz ere kolokan jarri nahi egungo politikak. Eta feminismoak egungo politika publikoak eraldatzearen beharra jarri du mahai gainean.

EH Bilduk argi du emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna lortzeko ezinbestekoa da gizarte-egitura bera kolokan jartzea, egungo rola eta sexuaren arabera lan-banaketa deuseztatzeko, pertsona guztien bizitza duina politiken erdian kokatzeko, indarkeria matxistari aurre egiteko politika publiko eraginkorrak egiteko edota prekaritate sistemikotik ateratzeko. Eta horretaz ez da ezer planteatzen Berdintasun Foru Arauan. Horregatik diogu beharrezkoa dela, baina ez nahikoa.

HELBURU OROKORRA

- Bizitzaren iraunkortasuna politika publikoen erdigunean kokatua dagoen beste eredu batera igaro behar gara, unibertsaltasuna eta singularitasuna kontuan hartuko dituen.
- Emakumeak zaintzaile izateko jaio garen ideia apurtu nahi dugu, eta zaintzeko eta zaindua izateko asmoa duenari bere eskubideak bermatu nahi dizkiogu.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasun formaletik errealera pasatzera joateko neurriak hartu behar dira, eta indarkeria matxista gainditzeko akordio sozial integrala ere abian ezarri.

- Emakumeak eta prekarietatea, lotuta dauden bi errealitate izateari uzteko, akordio sozial berriak eraikitzen joan da, zaintza lanen ardura eta baldintzak parekidetu, edota sistema produktibo eta erreproduktiboaren arteko bereizketa gainditzen haste beretik.
- Indarkeria matxista da indarkeria agerikoena eta gaitzespen sozial handiena lortu duena, baina oraindik indarkeriaren oinarria bera eta hainbat indarkeria zuzen ikusgarri egiteko daude. Horretarako ezinbestekoa dugu indarkeria mota guztiez aritzea, baita jasaten duten gorputz guztiak erdigunean jartzea, homofobia, lesbofobia, transfobia..jendarte heterosexistaren ondorio diren heinean erdigunera ekarri behar baititugu.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Politika publikoak eraldatzea

- Berdintasun-politikak zeharkako ikuspegi feminista batetik garatzea. Sail bakoitzean dauden berdintasun-batzordeak zein Sailen artekoak indartu eta eraginkor bihurtu, formakuntzaz eta behar adinako baliabideez hornituz.
- Proiektu estrategiko eta aurrekontuak egin eta diseinatzeko, genero-eragina aztertzea eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaile guztiak aktibatzea; haiek garatu ondoren azterketa hori egitea, haien benetako eragina ezagutzeko.
- Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-sarea indartuko dugu, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bizkaiko udalerrien eta udalez gaindiko erakundearen artean berdintasunaren aldeko lana eta koordinazioa indartzeko, beharrezkoak diren baliabideak bermatuz.
- Kontratazio eta diru-laguntzetan nahitaezko genero-klausulak ezarri eta betearazteko jarraipen tresnak sustatu.

Emakumeen parte hartze soziopolitiko aktibatu eta indartzea

- Berdintasun Foru Arauak sorturiko Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua era parte-hartzailean eratuko dugu eta bertan hartzen diren erabakiak aurrera eramateko konpromisoa hartzen dugu. Kontseilua mugimendu feministak eta emakume-elkarteek politika publikoen diseinuan, egikaritzean eta jarraipenean parte hartzeko tresna izan behar du.
- Bizkaiko Foru Aldundiak, udalerriekin batera, Emakume Etxeak, ahalduntze-eskolak edo ekintza politika feministarako antzeko guneak sor daitezela sustatu eta bultzatu behar du, jatorri, arraza, sexu-orientazio edo genero-adierazpen zein beste edozein arrazoi direla-eta diskriminazio anitzak jasaten dituzten emakumeei arreta berezia eskainiz.
- Parte hartzeari buruzko “dekalogoa” edo “protokoloa” bat egitea, printzipio feministetan oinarrituta, eremu guztietan parte hartzeko eredu osasungarri, orekatu, jasangarri eta ahalduntzailea susta dezan, diskriminazio ugari pairatzen dituzten emakumeen edo parte

hartzeko zailtasun gehien dauzkatenen presentzia eta aniztasunari behar bezalako erantzuna emango diona.

Zainketa duin eta unibertsaletarako baldintzak sortzea

- Zainketa-premia guztiak biltzen dituzten zerbitzuak nahikoak izateko plangintza garatzea, ematen diren zerbitzuen kalitatea sustatzea eta bertan aritzen diren langileen lan-baldintza duinak bermatzea. Zerbitzu nahikoak, emakumeak behartuta egon ez daitezen familia barruko zaintzak egitera. Halaber, zerbitzuak pribatizatzeke joera eten egin behar da eta sare publikora sartzeko prozesua bultzatzea.
- Zaintzaileei (informalei eta etxeko langileei) laguntzeko bitartekoak indartzea, kontzientzia kritikoa eta etxe barruko auto-zaintza eta negoziatzeak tresnak haien eskura jarritz. Halaber, zaintzaileei atsedean emateko programak gaitzea, ahalduntze jarduerekin batera.
- Zaintzak era komunitarioan eta kooperatiboan egiteko proiektuak bultzatu.

Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak sortzea

- Emakumeen arreta integralerako baliabide nahikoak edukiko dituzten egitura jasangarriak sortzea, landa-eremuetan zuzeneko arretarako eta kalitatezko zerbitzuak eskainiz. Indarkeria Matxistaren Biktimen Arreta Integralerako Taldeak sortzea foru-lurralde osoan.
- Indarkeria matxistei aurre egiten dioten emakume eta adin txikikoei baliabide publikoak eskaintzea, mugimendu feministarekin batera identifikatutako kasu guztietan, nahiz eta egungo berdintasun legeetan jasoak ez egon.
- Emakumeen eta adin txikikoen aurkako indarkeria-kasuen prebentzioan eta kudeaketan diharduten profesionalen (polizia-kidegoak, gizarte-zerbitzuak, enplegua, hezkuntza, epailetza, etab.) nahitaezko genero-prestakuntza jarraitua sustatzea ikuspegi feminista batetik.

GARAPENERAKO LANKIDETZA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Elkartasuna, jabetze eta laguntza biztanle subjektuengandik sortuko direlarik, sakontasuna bazterkeriaren kontzeptuaren nahiz garapenaren kontzeptuaren dimentsio aniztasunari jarraituz, kalitatea zein gardentasuna garapenerako lankidetzaren aldeko politikaren kalitatea neurtzeko, eta koordinazioa eraginak hobetzeko, ezinbestean behar duten izan printzipio gidariak.

Garapen jasagarria, partekatua lortu nahi dugu, lan duina sustatzen duen garapena, giza eskubideen, demokraziaren eta gobernu onaren alde egiten duena, egiturazko pobrezia desagerrarazita. Azken batean, justizia eta ekitate handiagoko egoerara eramango gaituen eraldaketaren bidean aurrera egin nahi dugu; baina bi alderdi, bereziki, aipatu nahiko genituzke bide horretan: alde batetik, munduko hizkuntza-aniztasuna eta kultura-aniztasuna sustatzeko eta horri eusteko premia, aberastasun globalaren elementua den aldetik, eta bestetik, emakumeek betetzen duten eginkizuna, garapen-sustatzaileak diren aldetik.

Ilido beretik, herriek euren natura-baliabideak eta kultura-jakintza kontrolatzeko duten eskubidea errespetatu egin behar da, baita subiranotasunak eta libre erabakitze aukera ere. Horretaz gain, emakumeak ez dira tresnatzat hartu behar, helburu ekonomikoak direla eta.

HELBURU OROKORRA

Garapenaren bidez mundu zuzenagoa eta jasagarriagoa lortzen laguntzeko tresnarik garrantzitsuena koherentzia da; garapenerako politikei ikuspegi koherente batetik begiratzea, alegia. Ikuspegi koherente batetik begiratu gero, erreferentziako esparru bat eta irizpideak izango ditugu eta, hartara, hainbat arlotako politikek –merkataritzaren, energiaren edo zergaren arloko politikek, esaterako– beste herrialde batzuetan eragiten dituzten ondorio negatiboak saihestu ditzakegu, betiere herritarrek eskubideak baliatu ahal izateko baldintzak sortzea eragotzi edo oztopatu gabe.

Gainera, gure herrian lortu nahi dugun garapen motarekin bat datozen politika publikoak diseinatze eta erabakiak hartze irizpideak ere eskainiko dizkigu.

Nazioarteko Lankidetzaz ari garelarik, gizarte-mugimenduen egitekoa nabarmendu behar dugu, emantzipazio-logiketan funtsezko subjektu diren aldetik; gizarte-mugimenduek demokrazia parte-hartzailearen formula berriak taxutzen eta defendatzen dituzte ekitatean, horizontaltasunean eta desberdinen antolamenduan oinarrituta, eta gaur egun, giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide politikoak euren aldaketa-agenden inguruan mobilizatzeko gaitasun handia dute gizarte-mugimenduek, bakoitzak bere heinean.

Hortaz, herritartasunaren eta demokraziaren bidean aurrera egin nahi badugu, gizarte-mugimenduak indartu beharko ditugu, ezinbestean.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Lankidetzaren solidario eta eraginkorra garatzea

- Legez ezarritako aurrekontu osoaren %0,7a lortzeko neurriak aktibatuz.
- Gizarte-eragileekin batera lankidetzaren plana garatu.
- Lankidetzaren agenteekin elkarrikeria politikoa izateko ahalmena eta borondatea duten egitura politikoa sortzea, baita kontsultak egiteko eta erabakiak hartzeko guneak ere.
- Lankidetzarako zuzeneko guneak bultzatzea, Euskal Fonda adibidez.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak —hau da, erakunde publikoak eta gizarte-erakundeak, iparralde globaleko eta hegoalde globaleko mugimendu eta erakundeak— lankidetzaren politiken sustatzaile gisa onartzea.
- Nazioarteko Lankidetzaren maila globalean dauzen asimetriak gainditzeko tresna bezala ulertzen dogu eta honen bidean ideia eta balio emantzipatzaileak (feminismoa, bizitze ona, dekolonialitatea, ekologismoa, internazionalismoa,...) gure politiken ildo estrategikoa izango dira. Alternatiba globalak sortu eta indartzeko gizarte mugimendu emantzipatzaileak aliatu estrategikotzat jotzen ditugu. Horregatik, gizarte mugimendu eraldatzaileen agendak, estrategiak eta antolakuntza kulturak indartzea estrategikoa eta zentrala izango da gure lankidetzaren eta aliantza politiketan.
- Sustatutako lankidetzaren politikaren ebaluazio eta jarraipenaren aldeko ekintzak aktibatzea, eta ekintza horiek sustatzaile nagusiei eta herritar guztiei ezagutzera ematea, haiei buruz eztabaidatzeko eta haien legitimitateari buruz erabakitzeke aukera izan dezaten.
- Administrazio publikoen kontratuetarako baldintza-agirietan, lan-eskubideen, genero-berdintasunaren, giza eskubideen eta ingurumen-eskubideen arloetako baldintzak txertatzea.

Justizia sozialaren araberrako lankidetzaren garatzea

- Beste herrialde batzuekiko harreman multilateralak bultzatzea, Iparralde-Hegoalde, laguntzaile onuraduna, emalea-hartzaile dikotomiak gaindituz; ildo horretan, eragileen arteko akordio estrategikoa gauzatuko dituzten esparru eta prozesuei emango diegu lehentasuna.
- Lankidetzaren politikan genero-ikuspegia txertatua duten erakundeekin lan egiteari lehentasuna ematea.
- Garapenerako lankidetzaren aldeko politikatik enpresentzako mozkinak edo merkataritza-onurak baztertzea, baita asistentzialismoarekin edo karitatearekin lotutako xedeak dituzten nazioarteko harremanen sustapena edo ekimenak ere.
- Estaturik ez duten edo hizkuntza gutxiak dituzten herriekiko lankidetzaren areagotzea, giza eskubideen nazioarteko esparruaren aitortza integrala lortu nahi duten nazioekin aliantza estrategikoa sortzeko asmoz.

- Protokolo bat aktibatzea administrazioaren ordezkarietarako, sinatu behar diren kontratuetan baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko.

Elkartasunaren kontzientzia soziala sortzea

- Herritar kritiko antolatua sortzea (ikerketa, eragin politikoa, sentsibilizazioa, emantzipazio-hezkuntza, antolaketa) zuzenean bideratzen den lankidetzaren guztizko ehuneko modu iraunkorren handitzea.
- Herritarren artean elkartasunaren kultura sustatzea, garapenerako lankidetzaren, garapenerako hezkuntzaren eta herritarren sentsibilizazioaren bitartez.
- Lankidetzaren politika bat bultzatzea, herrien eta gizarte-sektoreen arteko desoreka eragiten duten arrazoen gaineko kontzientzia kritikoa sortzeko helburuarekin.
- Erosketa publiko etikoaren inplementatzea, banka etikoari, energia-kontratuei, materialak erosteari, software libreko programa informatikoei, jasangarritasun ekologikoari eta beste zenbait alderdiri dagokienez.
- Gardentasunaren eta kontuak ematearen ildoari jarraikiz, urte bakoitzeko lehen seihilekoan Garapenerako Lankidetzaren jardueren memoria argitaratzea; memoria horretan, burututako ekintzen laburpena, zer emaitza lortu diren eta aurrekontu-likidazioa aurkeztuko dira.

SEXU ANIZTASUNA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Sexualitatea pertsonen izaerari eta bizitza berari loturiko zerbait da, genero banaketa eraikitako klasifikazioa den moduan. Jendarteratze sexistak eragin zuzena dauka sexualitatea, generoa eta gorputza eraikitzeke garaian; araututakotik irteteak gainera fobiak, jazarpenak eta bazterkeriak eragiten ditu gaurko egunean.

Ez dago sexualitatea bizitzeko modu bakar eta “normalik”, hau da, gizon eta emakume gisa garatzeko eta bizitzeko modu bakar bat. Emakumezkoak emakume diren heinean baloratu behar dira (emakume izateko modu anitzak daudela onartuz) eta gizonezkoak ere gizonezko diren heinean baloratu behar dira (gizonezko izateko modu ugari eta anitzak daudela onartuz).

Araututako harremanen ordena eraldatu behar dugu, eredu patriarkal eta puritanoak inposatzen dituen gizon-emakume, maitasun, erotika, harreman eskemak gaindituz.

Elkarbizitza eta elkartasuna bultzatuko duten ekintzak eta politikak garatzea ezinbestekoa da, gizon-emakumeek askatasunean aukeratutako biziak moldeak diskriminatu, zanpatu eta epaituko duten jarrerak baztertuaz.

Urratsak eman badira ere bereziki bisibilizazioan eta esparruak irabazteko unean, eredu heterosexual eta gorputz normatiboetatik irteten diren pertsonen ez zaizkie eskubide horiek guztiak bermatzen; horregatik hezkuntza, osasuna, lan mundua, administrazio publikoa eta komunikabideetan bereziki, baliabide tekniko, juridiko eta ekonomikoak aktibatu behar dira herritartasun anitzak parekidetasunean garatu ahal izateko, edozein delarik ere afektibitatea, sexualitatea, generoa eta gorputza garatzeko hautua.

HELBURU OROKORRA

Azken urteotan eta elkarrekin zein kolektibo lesbiana, gay, bisexual eta transexualek egindako lanari esker, lege mailako urratsak eman dira. Nolanahi ere urratsak ematen jarraitzen dugu aniztasun eta askatasun sexuala jendartearen esparru orotan gauzatu izan dadin, eta paradigma sexuala (heteroaraua) aldatzeko.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Eremu guztietan (ekonomia, kultura, zientziak, komunikabideak, etab.) LGTBI+ pertsonak normalizatu eta ikusarazteko ekintzak bultzatzea, ikusezina goak bihurtutako kolektiboak — lesbianak edo trans pertsonak, adibidez — arreta berezia eskainiz: esaterako, lurraldeko kolektiboak, kideen eta mugimenduen memoria historikoa berreskuratzeko jardueren bitartez kanpaina espezifikoak eginez (kasu, kaleen izendegiak aldatzea, ikerketak bultzatzea, omenaldiak antolatzea etab.), helburu horretarako diru-laguntzen ildoak bultzatuz, etab.
- Parte hartzeko lankidetzarako gune eta mekanismo lotesle eta iraunkorrak aktibatzea administrazio publikoaren eta LGTBI+ kolektiboak artean, haien premia eta interesen berri izateko eta eremu publikoan zeharkako estrategiak batera zehazteko.
- Erakunde arteko koordinazio egoki baterako protokoloak aktibatzea sexu-nortasunagatiko edo genero-adierazpenagatiko diskriminazio-, jazarpen- eta indarkeria-kasuei aurre egiteko.
- Administrazioaren kargudun publikoak behar bezalako instrukzioa eta informazioa ematea aurreiritzirik gabeko jarreraren garapenari dagokionez.
- Foru Arauetan eta ordenantzetan jasoko dugu zentro eta zerbitzu publikoetan desioaren orientazioa, sexualitatearen espresioa eta harremanetarako askatasuna errespetatuko denaren bermea jasoa egon behar dela. Horretarako, zentro edota zerbitzu publikoetan lanean ari den langileei aniztasun sexuala errespetatzeko eta artatzeko formazioa eskainiko diegu.

- LGTBI haur eta gazteen autoerrekonozimentua eta autoestimua bultzatzea bideratutako programak gauzatuko ditugu.
- Sexualitate aniztasuna eta harremanetarako aniztasuna errespetutik, inklusiotik, eskubide errespetutik eta ezberdintasunaren errespetutik lantzen duten kultur jarduerak (antzerkia, zinema, erakusketak...) bultzatu eta kontratatu eta erakutsiko ditugu. Horren kontra aritzen direnak, berriz, ez ditugu kontratatuko instituzio publikoetatik.

HERRI OSASUNTSU ETA IKASIA

KULTURA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Kultura eskubide unibertsala da, pertsona orori bermatu beharrekoa. Bai eta herri orori ere. Horregatik kulturadun emakume eta gizonez osatutako herria nahi dugu, herritar sortzaile, kritiko, burujabe eta librez osatutakoa eta sinetsita gaude kultura helburu hori lortzeko bitarteko paregabea dela.

Kultura pertsonaren garapen integralerako ezinbestekoa da eta horrenbestez, herri baten ongizatearen parte. Eta kohesiorako zein integratzeorako tresna naturala, hurrengo urteotako erronka izango dena, migrazioak, elkarbizitza eta aldaketa sozialak nagusi izango diren testuinguruan.

Euskal herritar orok bere herriaren historia, ohitura eta kultura ezagutu eta sakontzeko eskubidea du; era berean, eskubide osoa du beste herrialdeetako kulturak ezagutu eta bereganatzeko. Kultura, hizkuntza, hezkuntza eta beste zenbait eskubideren moduan, herri eskubide kolektiboa izateaz gain, pertsona bakoitzak duen eskubide indibiduala ere bada. Beraz herritarrei auzo-herritik hasiz Euskal Herri mailan sorturiko kulturaren jabe eta partaide izatea zor diegu.

EH Bilduk Euskal Herriak bizi duen aniztasun kulturala aldarrikatzen du, ekosistema bizi gisa. Horren baitan, euskal kultura eta euskarazko kultura ditugu aniztasun guzti horren kohesionatzaile eta ardatz.

Halaber, kultura gizarte eraldatzaile ere badela uste dugu. Izan ere, kulturaren bidez jendartea eraiki eta eraldatu egiten da balio ezberdinen sustapenaren bidez.

Kultura, entretenimendu edo aisialdi soila baina askoz gehiago da; kultura gizarte baten garapenerako ezinbesteko elementu bat da; herri baten oinarri sinbolikoa elikatzen duen lehengai. Gizarte batean kultura mota ezberdinak elkar bizi dira, baina ezinbestekoa izan behar da guztiak lotu, kohesionatu, aglutinatuko dituen bat izatea; herri honen bizinahia elikatuko duena; kasu honetan, euskal kultura ekarriko genuke lehen plano horretara.

Kultura partekatu bat behar dugu, sorkuntza prestigiatuko duen politika bat, lanpostuak sortuko dituen eta daudenak mantentzen lagunduko duena, ekoizpen kultur propioaren bitartez sortze eta ekoizpen prozesuetan bizitasuna txertatuko duena.

Kultura globalizatu eta kontsumistaren jaialdi erraldoien eredu egunerokoan bultzaten duen aurrean, herritarren autoeraketa eta enpoderamendua bilatuko duen kultur ereduaren alde egiten dugu; herritarrak sortzaile eta parte hartzaile izango dituen. Horretarako auzolana oinarri izango duen herritik sortutako eta herriarentzako kultura bultzatuko dugu, administrazioa laguntzaile izango delarik. EH Bildutik beste kultura eredu bat aldarrikatzen dugu.

HELBURU OROKORRA

Kulturaren ikusgarritasuna, irismena, hedapena, eskuragarritasuna, zabalkundea eta transmisioa dira gure erronkarik nagusienetakoak.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Kultura parte-hartzailea sustatzea

- Kultura kudeatzeko eredu berriak landuko eta bultzatuko ditugu, partehartzean oinarrituta. Horretarako administrazio publikoen eta kultur sistema osatzen duten eragile guztien artean harremanak sustatuko ditugu. Hartu beharreko erabakiak, ekarpenak eta neurriak guztion artean adostuz.
- Sektoreko protagonistak (administrazioa, enpresak, sortzaileak) elkartuko dituzten mahai sektorialak sortuko ditugu. Liburuaren mahaia (liburu-saltzaileak, liburuzainak, argitaletxeak), arte plastikoaren mahaia (artistak, akademiak, galeriak), musikaren mahaia (kontserbatorioak, musika-aretoak, sustapen-etxeak), arte eszenikoaren mahaia, eta abar.
- Lurraldeko/udalerriko kultura-zentroen kudeaketa parte-hartzailea edo ko-kudeaketa kultura-ekimenekin, auzo-elkarteekin, sortzaileekin eta abarrekin, gune publikoen enpresa-kudeaketa pribatua saihestuta.
- Autokudeaketako oinarria duten proiektuak lehenestea laguntza publikoak ematean.

Euskarazko kultura-sorkuntza sustatzea eta babestea zaletasuna handitzeko

- Kultura politiketan sormen artistikoaren, ekoizpenen, kultura industrien, sustapenaren arteko oreka bilatu behar da, baina sormenak izan behar du ardatza, abiapuntua. Kulturaz ari garenean, oinarrizko kulturak, herri eragile desberdinengandik datozenak bultzatzea eta garatzea izango da gure erronka nagusia.

- Euskal kulturaren kontsumoa handitu behar da. Horretarako erakundeek inplikatu behar dira eta zaletasuna sortu behar da. Bertoko produktoreei plazak erraztuz adibidez.
- Hitzarmenak finkatu sortzaileekin euren lanak auzoetara eta eskola-institutuetara eramateko.
- Sortzaile euskaldunen guneak indartu eta baliabide nahikoa eduki dezaten sustatuko dugu.
- Babes publikoa administrazioen aldetik euskarari eta euskal kulturari, lehentasunez sustatzearen bidez eta kontzientziazio-kanpainen bidez.
- Euskarari eta euskarazko kulturari buruzko ikerketa sustatuko dugu, bereziki unibertsitate eta goi-mailako ikerketarako erakundeetan.
- Euskarazko kultur sorkuntza, kontsumoa eta bere nazioarteratzea sustatuko ditugu euskarazko kultur industria indartsua eta jasangarria lortzeko helburuarekin.

Euskal kultura eta bere transmisioa

- Euskal kultura euskaratik eta euskaraz sortzen dena da. Euskal kulturgintzaren transmisioaren arloan euskara eta euskal kultura gaur egun arte zelan iritsi zaizkigun ezagutzea ezinbestekoa da hurrengo belaunaldiei ere transmititzeko.
- Euskal kulturaren ikusgarritasuna sustatu eta euskaraz ekoiztutako kulturari lehentasuna emango diogu.
- Euskarazko Kulturaren mahaia sortu beharra dago, euskarazko kultura politikaren gaineko jarraipena egiteko.
- Euskarazko kultura politika berezitua diseinatu beharra dago, euskarazko kulturari lehentasuna emango diona eta kulturgintzako eragileekin elkarlanean burutuko diren neurriak proposatzen ditugu, hiru behar nagusi hauetan oinarrituta: euskaraz programatu beharra, behar besteko plazak bermatuz, eta euskarazko kulturaren ikusgarritasuna, batetik, eta transmisioa, bestetik, ziurtatzea.

Kultura feminismitik

- Emakume artistak ikustarazi behar dira. Diziplina ezberdinetako emakume sortzaileen lana baloratu eta indartu beharra dago neurriak eta baliabideak jarritz.
- Emakume sortzaileek egindako lanak kultura-sorkuntzak erakustera bideratutako gune fisiko eta digitalaren % 50 har dezala bermatzea.
- Euskal kultura-sorkuntzaren historia osoan emakumeek egindako sorkuntzak ahanzturatik ateratzea, eta garrantzi berezia ematea gaur egungo emakume sortzaileek egindako obrei.

Ondarearen kontserbazioa eta babesa

- Bizkaian daukagun ondare materiala eta inmateriala kontserbatzeko, babesteko, balioan jartzeko, zabaltzeko eta hurrengo belaunaldiei transmititzeko, Plan estrategiko (mapak, errolda, ikerketak...) bat beharrezkoa da.
- Bizkaiko Kultur Ondarearen gaineko zaintza eta balioan jartzeko plana abian jartzea. Ondare horien gaineko inbentario integrala eta zabala bultzatuz zein ondarearen babeserako baliabideak handituz.
- Kontzientziazio-kanpaina bat egitea lurralde osoan, gure arkitektura-ondarea balioesteko, zaintzeko eta kontserbatzeko, aholkularitzarekin eta laguntza instituzionalekin batera.
- Ondare industrialaren kontserbazioa, bai materiala eta inmateriala.
- Molinos Vascos eraikinean, Industria eta Teknikaren euskal museoa bultzatu.
- Bizkaiko ondare kulturalaren babesaren eta alde lan egiten duten eragileekin lankidetzeta eta ahalduntzea, gardentasunean oinarrituz.

KIROLA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Kirola eskubide gisa ulertzen dugu, edozein pertsonaren garapen integralerako zein gizarte kohesiorako elementua. Kirola herritar ororen sarbidea eta aukera berdintasuna bermatu nahi dugu.

Kirola eskubide gisa ulertuta, herritar orori bermatu behar zaizkio kalitatezko kirol praktikarako sarbidea eta kirola praktikatzeko baldintza duinak. Berau dugu pertsonaren garapen integralerako zein bizi kalitate oneko gizarte kohesionatu eta osasuntsua lortzeko giltzarrietako bat.

Kirola funtsezko elementua dugu Euskal Herriaren kohesio, egituratze eta nazioaren garapenerako: nazio identitatea eta gure sinboloak suspertuz, euskararen normalizazioan urratsak emanez eta euskal kirol eredu propioa egituratzeko giltzarriak diren egiturak (federazio, elkarteak...) eta lehiaketa-markoa definituz eta egituratuz, besteak beste.

Beste alde batetik, kirolaz gain, jarduera fisikoaren praktikaz ari gara. Gauza bat kirola delako eta beste bat jarduera fisikoaren praktika, batez ere gaur egungo filosofian kirol kontzeptu zabalak jarduera fisikoaren praktika hartzen duelako kontuan.

Zentzu horretan kirol egokitan eta desgaitasunen bat dutenen pertsonen artean jarduera fisikoaren praktikak izugarritzko eboluzioa izan duen arren, kolektiboan jarduera fisikoa eta kirola sustatzea behar beharrezkoa baita gizarte inklusioa garatzeko.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

Kalitatezko kirola

- Formazio egokia izango duten kirol hezitzaile/entrenatzaileak etengabeko formazioa eskainiz. Eusko Jaurlaritzaren menpean dagoen Kirolene kirol formazioa zentroarekin elkarlanaren bidez
- Herrialdeen arteko kirol-estrategia eta ekintzak partekatuz eta elkarlanean arituz.
- Baliabideak jarri hurrek kirolaren baloreetan hezitzeko.
- Kirol egokitua bisibilizatu eta ohikoak diren kirol praktika eremuetara zabaltzeko lanean aritu behar gara, esparruko eragileekin batera. Herritar guztien artean kalitatezko jarduera fisikoaren praktika zabaltzeko, baita osasun ikuspegi batetatik.

Euskarazko kirola sustatzea eta bultzatea

- Kirolaren euskalduntzea bultzatuko ditugu.
- Kirol-jarduna euskalduntzeko federazioekin eta kirol-klubekin elkarlanean arituko gara, kirol-jardueraren alderdi guztiak euskalduntzeko lehiaketatik teknikarien prestakuntzara.
- Hizkuntza eskubideak bermatzeko, neurriak eta baliabideak areagotu federazioekin eta kirol-klubekin elkarlanean.

Kirola feminismotik

- Neskek, haurtzaroa amaitzean, kirola uzteko izan duten joera hautsi beharra ikusten dugulako. Horretarako baliabideak jarri behar ditugu.
- Herrialdeko emakume kirolarien lorpenak azalarazten dituzten materialak sortu (egutegiak, kartelak, triptikoak...).
- Kirol feminizatu eta maskulinizatuen esparruak gaintzeko neurriak sustatuko ditugu.
- Emakumeen kirola bultzatu eta ikustarazi, emakumezkoen eta gizonezkoen kirolerako errekursoak berdinduz.
- Txapelketetan emakumezko eta gizonezko kategorietan sari berdinak eman.
- Federazio bakoitzak Berdintasun plan bat izateko elkarlana abiatu.

- Kirol eremuko araudia osatzea, genero berdintasunean oinarritua, kirol kudeaketa eremuan bereziki emakumearen presentzia indartu eta sustatuko duena.

Kirol federatua

- Kirol gutxituen ez diren Bizkaiko federazioen hautes-araudien legedia aldaketa bultzatu. Zuzendaritzan egoteko epea mugatuz, emakume eta gazteen gutxieneko kopuruak ezarriz ere.
- Lehiaketarako euskal-esparrua sustatu.

Eskola kirola

- Elitera irteera izan dezaketen kiroletan lehiaketa mistoak garatu.
- Hegoaldeko lau herrialdeetarako eskola kirol eredu bakarra egokitu.

Goi mailako kirola

- Bizkaiko Foru Aldundiko kirol fundazioetan (Bizkaialde...) oposizioaren alderdietako presentzia bermatu administrazio kontseiluetan.
- Klub profesionalen euren langileen hauteskunde sindikal libreak egitera behartu.

Etorkinen parte-hartzea

- Kirolan etorkinen benetako parte-hartzea ez oztopatzeko neurriak hartu. Eta Estatutik ezartzen diren arau murriztaileen kontra neurriak jarri.

LAIKOTASUNA

DIAGNOSTIKOA, KOKAPENA

Laikotasunak kontzientzia askatasuna, eskubideen parekidetasuna eta politika publikoen unibertsaltasuna ditu oinarri.

Laikotasuna ezinbestekoa da edozein jendarte guztiz demokratikoa eraikitzeko, eta administrazio publikoen lana da bide horretan aritzea. Era berean, lurralde laiko bat ezinbestekoa da giza eskubideen benetako bermea emateko. Oso bereziki sexu-eskubideei eta emakumeen eskubideei

dagokionean; jendarte eta instituzio laiko batek eta ez bestek, bermatu baitezake askatasunaren, berdintasunaren eta aniztasunaren errespetua.

Laikotasunak erakunde publikoak eta erlijio ororekin lotutako jardunak bereizten ditu. Beraz, administrazio publikoen zeregina da pertsonen erlijioekiko duten jarrera askea errespetatu eta bermatzea, eta esparru pribatua gauzatzen den jardunak irizpide demokratikoak gauzatzen dituela bermatzea.

Erakunde publikoen eta konfesio erlijioso desberdinen arteko desberdintasuna ezinbestekoa da. Horrela, erlijioa esparru pribatua mugatu beharra dago, erakundeek jendarte zibilaren interesak babesteko dituelarik sinestunen interes partikularren gainetik.

HELBURU OROKORRA

Sistema laikoa oinarri, jendarte zibilaren interes orokorrak sinestunen interes partikularren gainetik ezarri behar dira. Hortaz, erlijio jarduna ez da jendarte osoarengan onura duen zerbitzu publikotzat joko.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

- Lurraldeko jardunean laikotasuna eta herritar, kolektibo zein herrien oinarrizko giza eskubideak bermatuko dituen Laikotasunaren Behatokia sortu, euskal erakundeen artean.
- Eliza katolikoak jasotako zerga-salbuespenak kentzea sustatuko dugu.
- Lurraldeko ondare historikoaren mantenuarekin lotutako laguntza lerroak, eraikin horien erabilera publikoaren baitan kokatu.
- Urteko erregistro publiko bat sortuko da, eliza katolikoaren esku dagoen ondare historiko-artistikoari buruzkoa.
- Eliza katolikoaren esku dagoen interes orokorreko ondarea desamortizatzeari hasiera emango zaio, onura publikoko ondare izan dadin.
- Diru-laguntza zein esleipen deialdietan, laikotasun klausulak onartu eta aplikatu.
- Erlijio ororekin lotutako iruditegia eta ospakizunak, instituzio publikoaren eta ordezkari publikoen jardunetik atera.
- Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu edota bertaratuz parte hartuko duen ospakizun oro, izaera zibilekoa izango da.
- Neurriak aktibatzea 1946-2015 aldiko urteei dagokien atzeraeraginezko inmatrikulazioa kentzeko, eta hori ez errepikatzeke bitartekoak ezartzea.